

# ASTELEHENKO Goienkaria

2007ko azaroaren 26a > Astelehenetik > III. urtea > 168. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Lagunen  
gorpuak jatea  
zaila izan zen  
arren, bestela,  
hil izango  
ginatekeen"

Gustavo  
Zerbino  
Hizlaria > 06



## G2a

Pirritx eta  
Porrotx,  
Eskoriatzan > 23

AHT  
Abiadura Handiko Trenaren  
aurkako ekintzak izan dira > 04

ANTZUOLA  
Beasain-Durangoren traztua alda  
dezaten eskatu du Udalak > 14

PREFERENTE MAILA  
UDAk eta Aloñak irabazi egin  
zuten, eta Mondrak, galdu > 16

ARETXABAleta > UDALA

### Udal plan "irekia" nahi dute

Lau urteotarako  
udal plana aurkeztu  
zuten Aralarrek  
eta EAk > 13

UMEAK > 'KANTARI'

### 'Kantari', bihartik, GOITBn

Atzo Bergaran egindako saio-  
arekin bukatu dira Kantari  
karaoke ikuskizuneko zuze-  
neko saioak.

Hala ere, Kantari-k jarraitu  
egiten du; izan ere, marti-  
tzen eta eguenetan, Oñatiin,  
Eskoriatzan, Arrasaten eta  
Bergaran grabatu dituzten  
saioak ikusteko aukera egon-  
go da GOITBn. > 24-26



HILDAKOAK Arrasaten, atzo iluntzean, Herriko plazan batu ziren hainbat lagun, sexu-biolentzia hildako emakumeak gogoratzeko.

JOSETXO ARANZABAL

BERGARA > EUSKARA

### Euskarazko produktuen katalogoa

Euskarazko jolas,  
liburu, filmak... batu  
ditu Udalak gidan > 11

#### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05

Elkarritzeta > 06

Iritzia > 07-08

Herriak > 09-14

Kirola > 15-22

Kultura > 23-28

Sailkatuak > 29

Berri-zakua > 30-31

Azkena > 32

GIZARTEA > EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

## Indarkeria sexista gaitzestu zuen ibarrak

EKITALDIAK Elkarretaratzeak eta  
atzoko egunarekin lotutako ekintzak  
izan ziren ibarreko herri askotan

ALDARRIKAPENA Berdintasun ezak  
eragindako indarkeria mota asko  
daudela esan zuten giza-eragileek

Emakumeenganako Indarkeria-  
ren Aurkako Nazioarteko Egunean,  
ekitaldiak izan ziren Deba-  
goienean ere, hainbat herrian,  
guztiak, biolentzia mota hori,  
bere adierazpen guztiak, gai-  
tapesteko. Ekitaldi jendetxuena  
Arrasaten izan zen (argazkian);  
han, sexu-indarkeriak hildako  
emakumeak izan zituzten gogo-  
an. Euskal Herrian bost hil dituze-  
te, eta adituek diote salaketak  
gero eta gehiago direla. > 05

BERGARA > JAIA

## Patata Azoka arrakastatsua egin zuten bergararrek

Zapatu goizeko euriari eta hotza-  
ri aurre eginez, euritakoa edo txam-  
arra hartuta, bergarar asko  
joan zen San Antonioko plazatxo-  
ra, I. Patata Feriaz gozatzen.  
Oso arrakastatsua izan zen jaia;  
hala, bi lehiaketa jokatu zituzten,  
eta herriko elkartea gastronomi-  
ko eta taberna askok eman zuten

izena; tabernen kasuan, antola-  
tzaleek uste baino gehiago izan  
zirenez, sari banaketan, beran-  
dutu egin zitzainen.

Jatekoez bapo gozatu zuten  
herriarrek, eta erantzuna hain  
ona izan denez, antolatzaleak,  
Gure Ametsa elkartea, berriz  
egingo duela esan du. > 09

KIROLA > SASKIBALOIA

## Arrasateko senior mailako mutilek galdu egin zuten

Zortzigarren jardunaldian  
jakin du Mondragon Unibertsitateak  
zer den galtzea; Zizur  
Nagusiko Valsay Ardoiren aur-  
ka 76-70 galdu zuen Iñaki Meri-  
nok zuzentzen duen taldeak.  
Aurreikusi bezala, partidu zai-  
la izan zen zapatuko; izan ere,  
Nafarroako taldea, Arrasate-

ko taldearekin batera, goiko  
postuetan lehian dabil. Zapati-  
uan galdu arren, MUk sailka-  
peneko lider jarraitzen du;  
orain arte, partidu bakarra gal-  
du dute arrasatearrek, eta, guz-  
tira, 15 puntu dituzte. Datorren  
astean, Baskoniaren aur-  
ka jokatuko dute. > 21

HIZKUNTZA &gt; EUSKARA ELKARTEAK

# Hizkuntza zabaltzeko ideian, ibilian euskararen bidean

**DEBAGOIENA** Zortzi euskara elkartea daude ibarrean; Leintz Gatzagakoa guraso elkartearren barruan dago

**HASIERA** Euskara elkartek hizkuntzaren presentzia areagotzea zuten hasierako helburu nagusia

**E2I JARDUNALDIAK** 'Euskara elkartek ibilian' izenburuean, jardunaldiak egin zituen Topaguneak egubakoitzean

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA Zapatuau, azaroaren 24an, bete zituen Euskararen Erabilerarako eta Normalizaziorako Legeak 25 urte. Euskalgintzan jardunen-jardunean aurrera egin da mende laurden honetan, eta zeregin horretan, besteak beste, zeresan eta pisu handia izan dute euskara elkartek. Adinez, pare samarrekoak dira Euskararen Legea eta Arrasateko AED Elkartea, azken horrek datorren urtean beteko baititu 25 urte. Ibilbide luzea, duda barik, gure ibarrean ere pausoak eman dituena eta emango dituena.

Arrasateko AEDz gain, ibarrean beste zapzi euskara elkarre daude: Aretxabaletako Loramendi, Bergarako Jardun, Antzuolako Idolaz, Elgetako Goibeko, Eskoriatzako Axtroki, Aramaioko Txirritola eta Oñatiko Laixan. Bestalde, Leintz Gatzagan, euskara elkartea Gurel guraso elkartearren barruan dago.

AEDrekin eta Euskararen Legearekin alderatuta, gazttxoagoa da euskara elkartek batzen dituen federazioa, Topagunea. Aurten bete dira hamar urte sortu zutenetik.

**HASIERAN, ERABILERA ARDATZ** Denboraren joanean, gizartearren batera, euskara elkartek ere aldatuz joan dira. Hasierako asmoak garai berrietara egokitu dituze, eta, etorkizunera begira ere, lanean dihardute.

Euskararen erabilera eragitea da elkarteen helburu nagusia, eta ibarreko elkartek ere xede horrekin hasi ziren lanean. "AEDren hasierako asmoa eguneroko bizitzan, gizarteko esparru guztietan, euskararen normalizazioa lortzea zen", esan digu elkarteko Itxaro Artolak. Bergarako Jardun elkarteko Nerea Mendizabal ere bat dator: "Jardunen hasierako helburuak ziren euskara sustatzea, euskararen presentzia areagotzea eta kalean euskara jartzea".

Horretarako, batzuek zein besteek hainbat proiektu eta egitasmo ipini zituzten abian. "Lehenengo neurria izan zen euskaldunak elkartearren inguruan bilteza. Gaur egundik begiratuta, badirudi erraza zela, baina, orduan, lorpen handia izan zen. Gero, bi alorretan egin zen, batik bat, lan: erakundeei begira, orduan euskararen kabineteak deitzen zirenak eratu ziren. Orain, badirudi gaintitua dagoela, baina orduan, udaletan, ez



KULTURA AEDk, Jardunek, Laixanek eta Loramendik Topagunearekin elkarlanean kultura ekintzak antolatu dituzte. ARTXIBOA



ERABILERA Euskaldun zaharrek berrikin euskara erabiltzeko egitasmoak dituzte abian elkartek; irteerak, esaterako. ARTXIBOA

zegoen Euskara Zerbitzurik, eta hori aldarrikatu eta lortu zen. Bestalde, lantaldeak jarri ziren martxan, gizarteko esparruak ukitu guran: kultura, sensibilizazioa, umeak eta gazteak, hedabideak, emakumea eta lan mundua. Horiek izan ziren AEDko hasierako lantaldeak. Gaur egun ora indik badaude AEDren barruan, lan ildoa modura edo erakundetuta, AEDtik aparte: Ekin, Txatxilipurdi, Goiena eta Euskalan", azaldu digu Itxaro Artolak.

Jardunek kultura arloko ekimenak landu zituen, batik bat hasieran: ikastaroak, hitzaldiak eta Amodiozko Gutunen Lehia-keta; beste jardun garrantzitsua aldizkaria zen.

## ERRONKA BERRIAK

Gizartea aldatuz joan ahala, ordea, beste behar batzuk sumatu zituzten, eta lan ildoa berriak abian ipini: "Hasieran, euskararen presentzia bermatzea zen helburua, baina, pixkanaka, euskara jakitea eta erabiltzea indartzeko jardunetara pasa ginien. Hortaz, lan ildoa gehitu egin ziren: kulturakoari eutsi egin genion, ume eta gazteena sortu zen eta baita sentsibilizazio alopea ere; aldizkariak, berriak, beste bide bat hartu zuen, Goienan", dio Nerea Mendizabalek.

Hasierako asmoak erabat ez direla bete eta euskara elkartek horregatik lanean jarraitzen dutela esan digu Itxaro Artolak: "Hasierako nahia zen euskara rendako esparruak irabazten joatea, eta horrekin dihardugu; proiektuak betetzea lortu da, baina helburu nagusia betetzeko bidean, lanean segi behar dugu".

Bide horrekin, lau urtetarako plan bat gertatu dute, eta hainbat erronka zehaztu: "Erronketariko bat, barrura begira, gure jarduera auzoetara zabaltzea da. Beste erronka edo nahi bat litzateke baziak, eta, oro har, euskaltzaleak trinkotzea, 830 bazkideko gizatalde hori sekulako altzorra delako. Bestalde, erabilera aldeko kontzentzia zabaltzea ere bada gure lana. Horretarako aukera badagoela uste dugu, eta, pauso pauso, lortuko dugu. Noski, AEDren 25. urteurrena ospatzea ere epe motzerako daukagun erronken artean jarriko genuke, datorren urteko azaroan izango da-eta".

Nerea Mendizabalek esan digunez, "jakintza maila bermatuta dagoela dirudi, hortaz, era-

## "Etorkizuneko erronketariko bat da AEDren jarduera auzoetara zabaltzea"

### "Jardun elkartea herrian gero eta presentzia handiagoa lortzen joan da"

bileran eragin nahi da gehiago. Horretarako, kampainak egiten dira, eta Berriketen proiektuarekin ere jendea euskara erabiltzea bultzatu nahi dugu. Jendeak pentsa dezake, euskaraz jakinda, dena egina dagoela, baina oraindik badugu euskara elkarteko zer eginik. Jendeak euskarareki ko jarrera baikorra azaltzea nahi dugu. Horretarako, esaterako, Berriketen proiektuaren barruan, adar berriak sortzea da gure asmoetariko bat, gazteena edo gurasoena, adibidez; baita hika lantzeko egitasmoak ere".

#### ELKARTEEN LEKUA

Asmoak eta nahiak, bai, baina, AEDko Itxaro Artolaren ustez, nolabait, "erreferentzialtasuna galdu da herrian, militantzia galdu da, baina hori ez da euskara elkarrean arazoak bakarrik, gizarteko eremu guztietan dagoen gaitza baizik".

FERMIN ETXEGOEN

## "Sinonimo bilakatu ditugu euskaraz bizi nahi izatea eta zuzentasun moralra"

Fermin Etxegoien kazetari oñatiarrak euskara estetika modura hartuta egin zuen hitzaldia. Euskarari dagokionez, formaren eta fondoaren garantzia zenbaterainokoan den ipini zuen zalantzan: "Formaren alde egiten dudan arren, hizkuntzaren baitan egon daitekeen fondo existentziala guztiz onargaria zait. Norbaitek esaten badu euskara berarentzat erlijio bakarra dela, onartzeko prest nago, eta sinpatiaz hartuko dut, seguruenik, baina praktika hori ez dut eredugarri ikusten".

"Batzuek ez dute euskaraz bizi nahi, baina euskararen alde daudela erakusten dute beti, sinonimo bilakatu ditugulako euskaraz bizi nahi izatea eta zuzentasun moralra, zein kontrako: euskaraz bizi nahi ez izatea eta okerkiera moralra", esan zuen Etxegoienek. Formaz edo plastika linguistikoaz jardun zuen, euskara janzkeratzea bat bezala konsideratzeari, alegia.

Nerea Mendizabalen iritzian, "herrian, Bergaran, Jardun elkartea gero eta presentzia handiagoa lortzen joan da. Hasieran ekin-tza puntualak egiten genituen, baina ekintzak gehituz eta finkatuz joan ahala, elkartea jende gehiagok ezagutzen du, edo hala dirudi. Esaterako, trikiti eskola edo bertso eskola urte guztian barrena egiten dira, eta parte-hartzaile kopurua ere gora joan da".

#### JARDUNALDIAK

Euskara elkartekoak, ibilbilen, badabiltza gurean ere. Hizkuntza nagusia erabileran eragitea bada ere, horretarako zer egin, euskaldunak nola motibatu, euskarak balio erantsia non duen, nola komunikatu modu eraginkorrean... dira euskalgintzako eragileek etorkizunera begira maiz egiten dituzten galderak. Galderei erantzun asmoz, jardunaldia egin zuen Topaguneak egubakoitzean Miramonen, horrela, besteak beste, euskara elkartekoak aurrera begiratzeko eta lan ildoa nagusiak zehazteko.

Gureko elkartetako ere joan ziren jardunaldieta eta, Itxaro Artolak esan digunez, "jardunaldiako edukiak askotarikoak eta interesgarriak izan dira, eta jasotako aprobatxatuko dugu".

Euskara elkarteen orain arteko eskarmenuan oinarrituta, esperientziak elkar trukatzeko erabili zuten jardunaldia: motibazioan eragiteko esperientziak, mintzapraktika egitasmoak, norberaren jarreratik talderako ibilbidea eta hizkuntzaren balio este-tikoaz jardun zuten, besteak beste. Ibarreko ordezkariek ere egin zituzten euren berbaldiak.

Gogoetaren ostean, elkarreko bakoitzak bere ibilbidean pausoak ematen segi beharko du orain, euskarak aurrera egin dezan.

AMAIA ANTERO

## "Kontzientzia da konpromisoaren aurreko urretsa, eta landu egin behar da"

Arizmendi ikastolako Amaia Antero euskararen aldeko motibazioan eragiteko moduak aztertu zituen bere berbaldian. Erantzunak baino gehiago, galderak egin zizkien bertaratutako egi: "Euskaraz ari garela, zer sentitzen dugu euskal hiztun gisa? Zer dakigu eta zer pentsatzen dugu euskararen inguruan? Zein leku betetzen du euskarak gure baitan? Eta guk euskararen baitan? Zein da euskaraz bizitzearren zentzua? Eta batentzat zentzua duenak ba ote du zentzuik besteentzat?"

Euskara zertarako eta zergatik bizi dugun galderari erantzunez, hau esan zuen: "Gure aurreko euskarari eutsi badiote, euren egunerokotasunean eta euren izaeraren zokorik ezkutuenean ere bizirik zegoelako izan da". Hauxe gaineratu zuen emozioen bidetik motibazioan eragiteaz: "Kontzientzia da konpromisoaren aurreko urretsa, eta ezin dugu egintzat eman; landu egin behar da".

Jasone Mendizabal > Topaguneko zuzendari nagusia

# "Egindakoa ondo dago, baina egitekoak askoz gehiago da"

I.A/L.Z. > ARRASATE

Topaguneak, Euskara Elkartearen Federazioak, *Euskal elkartea ibili* jardunaldia egin zuen egubakoitzean. Euskara elkartekoak eta euskalgintzako 100 lagun elkartu ziren jardunaldian. Jasone Mendizabal arrasatearrak, Topaguneko zuzendari nagusiak, eman digu jardunaldiaren berri.

Hamar urte bete ditu aurten Topaguneak. Hasieratik gaur egungo egoerara eman da aurrerapausorik, ezta?

Topaguneak, federazio moduan, bere bidea aurkitu du azken hamar urteotan. Bazkideekiko funtzioa definitu du, eta talde modura ere, asko hazi da: bazkide mordoa dauka gaur egun, 87 elkartea. 1997an eratu bazen ere, 96an, elkarreko egiteko bideari ekin zion Topaguneak sei elkartekeren. Ordutik, asko hazi da.

Gogoeta egitea zen, besteak beste, jardunaldiion helburua.

Horrelako urturrenaka egokiak dira gogoetarako eta hurrengo urteetarako bideak finkatzeko. Euskara elkarteen jarduerak ezagunak dira: tokiko hedabideak lantza, kultura ekintzak, ume eta gazteen aisialdia, erakundeak euskalduntzeko plangintzak, mintzapraktika programak... Horiek sustatzeko metodologietan, formazioan... egiten dugu lan, eta zerbitzuak antolatzen ditugu, bazkideendako lanak erraztuz. Zenbait datuk erakusten dute 87 elkarteen dimentsioa zenbatekoa den: federatutako elkartetako langileei Topagunekoak gehituz gero, ia 400 langile gara, eta sektore ekonomiko modura, aintzat hartzeko moduko mugimendua dela deritzogu: 10.000 eurotik gorako aurrekontua kudeatzen da, eta ia 20.000 bazkide gara, denera. Zerbitzugintzak nahiko trebatu gara euskara elkartekoak, eta horren adibide da Goiena; ibilbide propioa egin du, eta eskualde osorako antolatuta. Hala ere, gure kezka da egindakoa ondo dagoela, baina egitekoak askoz gehiago dela.

Etorkizunari nola begiratzen diozue?

Ahalegin handia egin dugu jendearenak aukerak sortzen, euskaraz hitz egiteko zerbitzuen bidez. Aisialdiarekin lotutako aukerak dira eraginkorrenak jendea asebetetzeko. Aurrerantzean, aukerak sortu ez ezik, jendearen barruak pizteko, ekintza berriak egin beharko ditugu. Hori guztia motibazioarekin lotzen dugu; ezagutza azken urteotan asko hazi den arren, erabilera ez da maila berean hazi; atzean geratu da. Aukera eta eskubidea egin, badago euskaraz jarduteko, baina aukera pertsonala handiagoa da espainolera jotzea. Hemendik aurrera landuko dugu gogo horiei



Jasone Mendizabal, Miramonen, jardunaldiaren.


TOPAGUNEA

nola eragin. Jardunaldiaren, komunikazioaz eta motibazioaz jardun dugu, eta abiatututzen dugu, etorrikuneko lan ildoa berriak finkatzeko.

Besteak beste, gai horiek lan-dutitze jardunaldiaren.

Zenbait esperientzia eta teknika ezagutu ditugu. Esaterako, Ferran Suay, Kataluniako eka-rritako. Bere teoriaren arabera, hizkuntza gutxituetako komunitateetan mendekotasuna gerta-tzen da harremanetan, eta bere-hala uzten diogu euskaraz hitz egiteari, urduri sentitzen garela-ko edo ez dakigulako horrelako egoera bati modu erosoa aurre egiten. *Coaching-a* izan daiteke beste metodo bat, kiroletik dato-rena eta gurera ere aplika dai-tekeena pertsonen eta erakunde-en eraldaketan. Bestalde, moti-bazio lanean, teknikez gain,

diskurtsoen gaineko azterketa egin du Paula Kasaresek; euskal inguruaren zein mezurekin agertzen diren euskalgintzako eragi-leak, administrazioa, zein kanpaina mota dauzkagun eta zein era-gin sortzen duten... Azaldu digu ekintza erakargarrien bidez eta mezu positiboak zabalduz lan egin behar dugula. Teknika horiek inguruko euskara elkar-teetara iritsiko dira, eta baita guregan ere. Hamar urte eman ditugu lanean, eta beste hamar urterako adina lan badaukagu. Badira ikerketa batzuetan oina-rritutako proposamenak, eta hori gurera ekartzeak prestakuntza handia, jendearen dedikazioa eta hori finantzatzeko baliabideak eskatzen ditu. Federazioek, ahal den neurrian, proposamenak ezagutarazi eta baliabideak bila-tuko ditugu, elkartetan modu kualifikatu integratzeko.



Navarra. Castillos que defendieron el Reino.

La Navarra occidental, la frontera del mar. Alava, Bizkaia, el Duranguesado, Gipuzkoa

609 irudi eta argazkiak

Abenduaren 3tik aurrera salgai

«...izan ginena ezagutzeak izatea dagokiguna esaten digu, gure historiako data zehatz batzuek egungo gure egoeraren nola eta zergatik galderetik erantzuten baitiote.»

Inaki Perurena



GIZARTEA &gt; ABIADURA HENDIKO TRENA

# AHTren aurkako aste bukaera, agerraldiaren atarian

Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan ekintzak egin dituzte AHTren aurkako taldeek

Europako Batasunak 118,5 milioi ipiniko ditu AHTrendako, eta Jaurlaritzak iritzi ona agertu du

LEIRE KORTABARRIA &gt; BERGARA

Abiadura Handiko Trenen aurkako taldeek hainbat ekintza egin zituzten egunean hasi eta atzoa bitartean, beste behin, trenaren aurkako jarrera erakusteko.

Egunean, Arrasaten, sozialisten egoitzaren aurrean AHTren aurka protesta egin zuten 50 bat lagunek. Protestagileek salatu zuten Ertzaintzak elkarretaratzea begiratu zuela eta ez zietela pankartak ateratzen utzi, aurrez baimena izan arren. Herrizaingo sailak, taldekoek diotena ukatu barik, bakar-bakarrak esan zuen istilu barik amaitu zela elkarretaratzea.

EKINTZAK BI HERRITAN

Giro lasaiagoan izan ziren Bergarako eta Aretxabaletako ekitaldiak. Hala, Bergaran, beste gauza batzuen artean, gaztetxeen

batzar irekia, bazkari begetaria-noa, antzerki emanaldiak... antolatu zituen Bergarako AHTren aurkako taldeak.

Aretxabaletako AHT Gelditu! elkarlanak ere, aretxabaletarrei begira, AHTren inguruko hitzaldia egin zuen atzo, domeka. Hiru hizlariak beste hainbeste alderditik aztertu zuten Abiadura Handiko Trena: ingurumenean izango duen eragina, batetik; gastu soziala, bestetik; eta herri galdeketak, hirugarrenik. Antolatzai-leen esanetan, hitzaldiok antolatzeko arrazoi nagusia "informazio falta" izan zen: "Horrelako proiektu handia, aurrekontu handiarekin, izateko, gizartea ez dago informatuta, eta horregatik, ez dago eztabaidarik", diote.

Hurrengo ekintza abenduanen 15ean izango da, Arrasaten, nazio agerraldiarekin.



ARETXABALETA Hiru hizlariak beste horrenbeste ikuspuntutik aztertu zuten AHT Aretxabaletan.

JOSETXO ARANZABAL

**AHT-RENDAKO 118,5 MILIOI**

Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Nuria Lopez de Gereñu Garraio sailburuak orain gutxi Europako Batasunak erabakitako dirulaguntzen gainean hitz egin du -erakunde horrek 118,5 milioi euro ematea erabaki du 2007-2013

tartean-, eta iritzi ona agertu du neurri horren inguruan. Sailburuaren esanetan, "Euskal Y-a garrantzitsua Europaren arteko: batetik, Europako Hego-Mendebaldeko abiadura handiko trena delako; eta, bestetik, balio gehitu handiko muga inguruko leku

bat dagoelako, Penintsula eta Europaren arteko lotunean".

Bestalde, Irungo Ugarte Hondeak etak enpresak AHTn lan egiteari utzi dio, protestengatik. Horren aurrean, Adegi Gipuzkoako Enpresaburuen Elkartea AHTren aldeko jarrera azaldu du.

POLITIKA &gt; EAE-ANV

## Independentistek bat egitea eskatu du EAEK

Estatuko hauteskunde orokorretara, euskal estatuaren aldeko aldarria eramango duela dio EAE-ANV

L.K. > BERGARA  
EAE-ANV taldeak elkarretaratzeak egin zituen joan den aste bukaeran Arrasaten, Bergaran eta Oñatin, *Guk euskal nazioa, independentzia leloarekin*. Elkarretaratzea egin eta gero, aldarria egin zuten, eta horrekiko atximendua batu zituzten.

Aldarria independentziaren eta euskal estatuaren aldeko eskaera da, eta martxoan Estatuko hauteskunde orokorrera berau aurkeztuko dute, Estatuko legebiltzarrera asmo hori eramateko. Besteak beste, hauxe esaten du aldarriak: "Oso importantea da hurrengo hauteskundeetan (...) Independentziaren aldekoek



eskubide guztiak izatea. EAE-ANV ilegalizatzea edo hauteskundeetan parte hartzeko aukerarik gabe uztea independentzia-

zaileen eskubideak urratzea litzateke, eta honengatik, independentziaren aldeko apustua egiten dugunok bat egin behar dugu".

GIZARTEA &gt; ELKARTASUNA

## Kooperanteek eta Kubako Azukrearen Ministeriokoek hitzaldia egingo dute

Latinoamerikan ibili diren gazteen esperientziak eta Kubako azukre sektorearen krisia izango dira berbagai

L.K. > ARRASATE  
Elkartasun arloko hitzaldi bat entzuteko aukera izango da etzi, eguztenea, protagonisten ahotik, Arrasaten, Kulturaren, 18:30ean. Han, batetik, Arrasateko Harreman Hirugarren Munduko Taldearen eskutik, Latinoamerikan kooperante ibili diren zapta gaztek egingo dute berba, tartean, bost debagoiendarrek: Arrasateko Luis Mariá San Julianek, Oihana Irazuk eta Elixabete Urangak,

Bergarako Eider Iturrospek eta Oñatiako Leire Irizarrek. Latinoamerikako hainbat herrialdetan garapen proiektuetan lagundu dute, eta euren esperientziaren eta garapen bidean dauden herrialde horietako egoeraren berri emango dute. "Egoera hartara gehiago hurbiltzeko balio izango du, izan ere, hango herrixka askok guk emandako laguntza besterik ez dute", diote antolatzaleek.

**KUBATARRAK**

Mundukideren eskutik, Debagoienean dauden Kubako Azukrearen Ministerioko lagunek ere hitz egingo dute. Azukre kanaberaren sektorearen krisiaz eta horren hutsunea betetzeko Kuba egiten dabilen ahalgina berba egingo dute. Nekazaritza eta abeltzaintza landu gura dituzte haren ordez.

GIZARTEA > EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

# Debagoienak ere sexu-violentzia jasaten duten emakumeak gogoratu zituen atzo

Elkarretaratzeak egin zituzten atzo hainbat herrian, violentzia mota hori gaitzesten

Legearen hutsuneak eta gizarte eredu patriarkala salatu dituzte, besteak beste

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA  
Debagoienean ere igarri zen Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, atzo, domeka; izan ere, ekitaldiak izan ziren hainbat herrian.

Arrasaten, Emakumeenganako Indarkerian Kontrako Plataforma dago, eta hark deituta egin zituzten mobilizazioak, *Emakume asko falta dira: erailek izan dira, eta zuri bost axola?* leloarekin. Atzo, domeka, egin zuten ekitaldi nagusia, elkarretaratzea, alegia, 19:00etan, plazan. Aurten, hainbat daturekiko arreta deitu zuten: besteak beste, Espainiako Gobernuak emandako indarkeriaren aurkako legeak dituen hutsuneetan ohartarazi zuten.

Oñatin, Antzuolan, Aretxabatetan eta Bergaran ere egin zituzten elkarretaratzeak edo egun horrekin lotutako bestelako ekin-tzak ere.



OÑATI Emakumeen aurkako violentzia buka dadila eskatu zuten elkarretaratzean atzo, Oñatin.

JOSETXO ARANZABAL

## BILGUNE FEMINISTA

Bestalde, Arrasateko Bilgune Feministak ere balorazio bat egin du. Besteak beste, esan zuen "emakumeok maila guztietako erasoaak pairatzen" dituztela, ez baka-

rrik tratu txarrak; eta egoera hori "diskriminazio historikoaren eta eskubide gabeziaren" ondorioztat jo zuten, "jendartearren beraren izaera patriarkalarena, hain zuzen". "Emakumeen aurkako

indarkeria emakumea kontrolpean edukitzeko modua izan da beti", diote. Horregatik, "indarkeriaren arazoa estrukturala da eta erantzunak, beraz, integrala izan behar du. Ez ditugu neurri penal

eta asistentzialak bakarrik behar, emakumeon eskubideak eta bete-beharra aldariatu behar ditugu". "Bizi duguna denon arazoa dela ikusarazi behar diogu jendar-teari", diote, azkenik.

Maite Barreña > Arrasateko Udaleko Berdintasun teknikaria

## "Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeen %25 gazteak dira; gauzak ez dabilta gura adina aldatzen"

G.A./L.K. > ARRASATE  
GOITBn elkarrizketatu egin zuten Maite Barreña, Arrasateko Udal Berdintasun teknikaria.

Datuak txarrak dira: gizonek hildako emakumeen kopurua gora doa...

Euskal Herrian, gaur arte, bost emakume hil dituzte, eta salaketak ere etengabe gora doaz.

Espainiako Gobernuak gaineko legea egin eta gero izaten gabiltza igoera hori. Zer gertatzen da?

Legea berandu etorrida. Batzutan, denbora luzea pasatzen da babes judizial eta politiko neurriak emate-rako, eta gero, ematen direnean, espero dugu arazoa berehala konpon dezaten. Legeak adostasun handia izan zuen; baina Estatu osorako lege bat dago, eta autonomia erkidego edo herri bakoitzeko egoera desberdin da; hori ez du kontuan hartzen. Oro har, legea, bere momentuan, aurre-rapausoa izan zen, baina labur gera-tu da hainbat esparrutan.



GOIAZT ARANA

Ze gabezia dira, bada, horiek?

Legeak onartzen du violentzia berdintasun gabeziaren adierazpen gor-dinen dela, hau da, emakume gare-lako erasotzen gaituztela. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lor-tzen ez den neurrian, ez da inoiz bio-lentzia hori amaituko; baina, nahiz eta legeak hori onartu, errekurto gutxi ematen ditu. Hala, gazteekin ere ger-tatzen dabil, eta belaunaldi berriekin

ere gertatuko da; itxaron barik jarri behar gara umeki eta gazteekin lan egiten, eta baita komunikabide eta teknologiekien.

Oraindik emakume asko ez dira salatza ausartzen, ezta?

Emakumeen egoerak desberdinak dira, eta bideak ere halakoak izan behar dira; bakoitzari egokitutako erantzuna emateko gaitasuna behar dugu. Hala, batzuek ez dute salatu nahi, eta hori onartu egin behar dugu.

Gero eta emakume gazte gehiagok jasaten dute violentzia. Hemen ere?

Bai. Emakume horien %25 30 urtetik beherakoak dira. Osodatu larria da, eta erakusten du gauzak ez dabil-tzala guk gura adina aldatzen. Arrasaten, ahalegin handia egiten gabil-tza, eta badakit arloko zinegotziak eta alkateak sentsibilitate handia dute-la. Baina, askotan, erantzukizun asko daude, eta erakunde aldetik, diru-erabiltzen dutenen aldetik, askotan, motz gelditzen da erantzuna.

## Tratu txarren aurrean laguntzeko gida bat jaits daiteke orain sakelako telefonoan


Gipuzkoako Foru Aldundiak sakelako telefonoan deskargatzeko laguntza gida bat prestatu du, tratu txarren kasuan nola jokatu jakiteko. Bluetooth sistemaren bidez, doan, edo 5195 zenbakira EVA edo EBA testu mezua bidalita jaso daiteke gida hori. Zazpi aukera dituen menu baten inguruan egituratuta dago: *Tratu txarra ematen dizu...; Nora jo; Erasoaren aurrean...; Hartu aurrea; Balia garri izango zaizu...; Salatzen baduzu...;* eta *Telefonoak.* Gida aurkezteko eta doan jaisteko kanpaina hasi du orain Aldundiak, eta Arrasatera ere etorriko da, datorren egubakoitzean, Seber Altaben plazan, 16:00etatik 20:00etara, karpa baten.

## LEHIAKETA

### BEKEren sarketako irabazlea hautatu dute

Bergarako Emakumeen Kultura Elkarreka (BEKE) atzoko egunaren harira antolatutako kartel lehiaketako sariak banatu zituen atzo. Aurtengo irabazlea Eneritz Tirados arrasatearra izan zen; ondoko argazkia da bere kartelaren. 200 euro irabazi ditu Tiradosek. Aipamen berezia egin diote Aratz Losada oñatiarrak egindako kartelari. Orain, lehiaketara aurkeztu-tako 21 kartelak erakusketan ikus daitezke, Pol-Polen.

**emakumeen aurkako indarkeriarik ez !**



Kartel irabazlea.

GOIENKARIA

Gustavo Zerbino, beste 29 lagun ez bezala, bizirik irten zen Andeetan orain dela 35 urte gerta-

tutako hegazkin istripistik. 'Viven' liburuak eta filmak islatu zuten gertakaria eta, beste-

ak beste, hildako lagunen gorpuak jateko erabaki latza hartu zutelako egin ziren ezagun.

Orain, esperientzia hura partekatuz, hitzaldiak egiten ditu, eta Arrasaten izango da asteon.

**Gustavo Zerbino > Zoritzarraren Kudeaketan aditua eta hizlaria**

# "Lagunen gorpuak jatea zaila izan arren, bestela elkarri begira hilko ginatekeen"

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE**  
Gustavo Zerbino uruguaiarra da, eta farmazia espezialitateen ikerketan liderra den laborategi bateko zuendaria. Gizabidea fundazioak gonditutu izango da eguztenean gurean, eta zoritzarraren kudeaketa izango du hizpide.

**Zein da entzuleei helaraziko diezun ideia?**

Beharrezkoa dela burua eta bihotza bereizten dituen marra laburtxea. Gizakiek bizi gaitezke gure gorengo indar fisiko, mental eta espiritualarekin, bizi tzaz gozatz, pozik, gertatzen zai guna gertatuta ere. Andeetan geratutako kontatuko dut, garantzitsuna arazoak aukera bihurtzea dela erakusteko. Andeetan ikasi genuen mina sahetezina dela, gizaki guztiok jasan beharreko. Zero azpitik 40 gradutan egotea hotza eta mina izatea zen, baina mina erlatibizatzen genuen. Burua norberaren alde erabiltzeko tresna da horrelako etan. Sufrimendua ekidin daiteke, norberak hala nahi badu. Baina gizakiek pentsamendua krisira bideratzen dugu, sufrimendua eraginez, biktima sentiaraziz. Jasan genuen egoera fisika eta mentala larria izan arren, alperrik ziren aitzakiak, kexak eta negarrak, mendiak bere horretan ziruelako; ohe beroa, jatekoak, familia... galdu genituela onartu genuen. Gure buruari galdu behar diogu zer eta nola egin behar dugun egoerari buelta emateko, ez gertatu zaigun hori zergatik gertatu zaigun.

**Andeetan bizi izandako hark zer erakutsi dizu?**

Funtsezko dena bigarren mailakotik bereizten. XXI. mendean, oparotasunaren, elikaduren, teknologiaren eta informazioaren garaian bizi gara, eta gizateriak, oro har, frustrazio, beldur, ezintasun, harrokeria eta atsekabe sentimendua du. Gu abandonatuta geunden, inolako baliabide materialik gabe, baina lortu genuen pozik eta gustura bizirautea, unean unekoa bizi genuelako. Izan zen iraganaren eta ezagutzen ez dugun etorkizunaren artean estututa bizi gara gizakiok. Andeetan, iraganari so eginez gero, galdu genuen hura ikus genezakeen: familia, ohe beroa, janaria...; etorkizunari begiratuz gero, heriotza ikusten genuen. Ez iraganean ezta etorkizunean ere ez zegoen zoriontsunik, eta unea bizi behar zen.

**Ahultasun uneei nola egin zenietan aurre?**

Lehenengo, egoera bera onartuz. Ni neu gaizki nengoen, baina aldamenera begiratu eta laguna ikusten nuen ni baino okerrago, hanka bat moztuta, mugitu ezinda, baina kexatu gabe; beste bat, sabelean burdin bat sartuta, eta okerrago zegoena, besterik ez bazen ere, haiei ura emateko geratu. Erabat ahaztutako baloreak barneratu genituen, eta konturatu ginen aparteko emaitzak lortzeko ezohiko neurriak hartu behar zirela. Esaterako, erabaki genuen hildako gure lagunen gorpuen elikatzea. Erabaki zaila baina, era berean, ausarta izan zen, izan ere, ezer egin gabe, elkarri begira hiltzea zen beste aukera. Gure gorpuak eskaini genituen, baldin eta, hiltzen baginen, erabil zitzaten gainontzekoek. Ez dago gauza handiagorik hil ostean lagun batu laguntzea baino. Gertakari hura maitasun, elkartasun eta eskuzabalatasun istorioa izan zen. Oraindik, urtero gurutzatzen dugu mendilerroa, Adiskidetasun Kopa jokatzeko. Hildako adiskideekin akordatzen gara, eta txiletarrei eskerrak ematen dizkiegu guregatik egin zutenagatik; militarrei, sendagileei, erizainei eta, batik bat, ganadua utzi eta gure bila ibili zen eta aurkitu gintuen unaiari.

**Horrelako egoera baten aurrean pertsonok berekoitzago ala solidarioago bihurtzen gara?**

Guk bizi izan genuen moduko infernuak sor dezakeen gauza bakarra harmonia da. Mendiaren 4.800 metrora geunden; gauzez, zero azpitik 40 graduko tenperaturak jasan behar genituen, eta egunez, 40-50 gradukoak. Horrelakoetan, gizakia beste dimensio batera pasatzen da; baina mugak buruan baino ez daude. Ezinezko dirudien laztuko dudala pentsatzen badut eta lortzeko behar den guztia egiten badut, lortu egingo dut.

**Beharrezko da lider baten irudia horrelako egoeratan?**

Andeetako talde homogeneoa zen: eskola berean ikasiak, auzo berean bizi izandakoak, erlijio berekoak eta kirol bera egiten genuen. Sekulako kohesioa zegoen, eta horrek konfiantza ematen zigun; aldamenekoa ezaguna zen, eta elkarrenganako errespetua handia zen. Andeetan, lidergoa berez sortzen zen; izotza urtzen zuena, barre egiteko gai



Gustavo Zerbino etzi Goi Eskola Politeknikoan izango da.

THINKING HEADS

**IRAKASGAIA**  
**"Izan zen iraganaren eta ezagutzen ez dugun etorkizunaren artean estututa bizi gara gizakiok"**

**ETSIPENA**  
**"Zerbaitegatik nahigabetu aurretik, dauzkagun gauza onak eskertzear dira"**

zena, medikuntzari buruz apenas jakin gabe lagunak sendatzentzuena, erosarioa errebatzen zuena, minaren gainetik isiltasuna apurtuz txantxa bat egiten zuena... mina gainditzeko zerbait egiten zuena, hura zen liderra.

**Bizitzako egoeren aurrean, itsita sentitzen da jende asko. Zer egin behar lukete?**

Modu batean zein bestean, gizaki guztiok zeharkatu behar ditugu gure Andeak egunero: lana galtzea, etxekoren bat hilteza... Alperrik dira aitzakiak

eguneroko bizimodu albo batera uzteko, gainditu beharreko desafioak dira, eta erakutsi behar dugu posible dela. Zerbaitegatik nahigabetu aurretik, dauzkagun gauza onak eskertzen ikasi behar dugu, horrek hobeto sentiarazi ko baikaitu. Baina bizi garen kontsumo gizartean, falta dugun horri begira bizi gara, txarra den horri bakarrik erreparatuz. Konturatutu behar gara porrotetik ere ikas daitekeela, eta emaitza positiboak lor ditzakegula.

**Maiz kontatu duzu Andeetako gertakaria. Etxekoei ere modu berean kontatzen diezu?**

Sei seme-alaba ditut, 20 urtekooa zaharrena eta urte eta erdiko gazteena. Ahalegintzen naiz orduko gauzak gogoratzen eta eurekin partekatzen. Oso ondo dakite gertatutakoaren berri. Beharbada, gorpuak jatearena da jendea gehien harritzen duena, baina gogoan dut nola seme batek, sei urte zituela, *Viven* filma lagun batekin ikusi eta esan ziola lagunari, janaririk ez genuenez, lagunei eskatu genizkiela euren giharrak, mendian gora egin ahal izateko. Hasieran gogorra izan zen arren, hori zen bide bakarra, eta egun ere, gauza bera egingo nuke.

**Konpara daiteke bizi izandako esperientzia enpresekin?**

Enpresak giza taldeak diren neurrian, helburuak, printzipioak, baloreak, konpromisoak eta ardurak dauzkate, eta eguneroko bizimoduari egin behar diete aurre. Guk natura aurkitu genuen aurrez aurre, eta egun, gizakiak gizakiaren aurka dihardu, pentsamolde eta filosofia ezberdinak.

**Zer litzateke Gustavo Zerbino Andeetako istripurik ezean?**

Andeetara joan ginenok lehengoan itzuli ginen. Pertsonok ez gara aldatzen; barne ezagutza aldatzen da, ikasketa prozesua azkartu egiten da. Zorionez, pertsonok elkarrenganako ezberdinak gara; denok berdinak bagina, aspergarria litzateke.

**Hemendik aurrera, nola egingo diozu aurre bizitzari?**

Egunero eskertzen diot Jainkoari beste egun bat eman izana, eta indarra eskatzen diot egoera gogorrei aurre egiteko eta barruan dudan onena ateratzeko, inguru koekin partekatzeko. Gizakia nai-zenez, erratu egiten naiz, baditut akatsak, baina horiek gainditzeko nago bizitza honetan.

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE

### > Abaroaren mahai joko- etan parte hartzeko deia

Abaroak jakinarazi duenez, hilaren 29an, eguna, jokatuko diren mahai jokoetarako izenematea gaur, bihar eta etzi da, elkartearren bulegoan. Bazkide txartela aurkeztu beharko da.

OÑATI

### > Federatu txartelakegi- teko eguna

Aloña Mendik jakinarazi du federatu txartela egiteko –baita aurretik eskaria eginda zuteneak txartela hartzeko ere– hartzeko eguna bihar, martitzena, dela, 18:00-20:00 ordutegian, taldearen bulegoan.

OÑATI

### > 'Elikadura orekatua' delako hitzaldia

Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak egingo du, Errekalde Herri Eskolak antolatuta. Hilaren 28an izango da, eguztena, 18:00etan, ikastetxeko areto nagusian.

BERGARA

### > Kilometroak 07ko zoz- ketako zenbakiek

Bono laguntzarekin batera zozketatu zitzuten bi egonaldietako saridunak azaldu ez direnez, ordezko zenbakien berri eman du Aranzadi ikastolak. Zenbakiek dira 2.591 eta 13.455. Sari bakoitzak bi lagunendako egonaldia Getariako Saiasgetaria hotelean.

BERGARA

### > Aranzadi ikastolako ikasle ohien aferia

1976. urtean jaiotakoek eta 5. mailan Miren Umerez irakaslearen gelan ibili zirenek aferia egingo dute Sirimiriñ. Hilaren 24an izango da hori. Izena emateko. deitu 652 71 74 27 zenbakira (Gorka).

ARAMAIO

### > KZguneko ikastaroeta- rako izenematea

Dinamizatzailea gaur, astelehena, egongo da KZgunean, 09:00-11:00 ordutegian. Ikastaroetan izena eman nahi duenak edo kontsultaren bat egin orduan du aukera.

ARRASATE

### > Jostailuen Truke Mer- katurako jostailuak batzen hasi dira

Abenduaren 15ean eta 16an egingo dute azoka. Ordurako jostailuak batzeko hainbat hitzordu egin dute: 29an eta

ANTZUOLA

### > Kongon egiten dabiltzan proiektuen gaine- berbaldia egingo dute asteon

Antzuolako Anelkar elkartasun elkartea Kongon egiten dabiltzan proiektuen berri eman nahi die herritarrei. Tomas Madinabeitia eta Bittor Arbulu Kongon izan ziren irailean, eta haien eta eguztenetan, 16:15ean izango dira eskolak; martitzen eta eguztenetan, berriz,

30ean, Santa Marinako ludotekan; eta abenduaren 4an eta 5ean, Ondokoan; guztietan, 17:00etik 19:00etara bitarteko ordutegian.

BERGARA

### > Kilometroen gaine- DVDa eskuratzeko eska- ria egin daiteke

Eskariak Aranzadiko idazkaritzan egin behar dira, abenduaren 1a baino lehen (943 76 90 71). Gero, abenduaren

17tik 21era bitartean banatuko dituzte, eta ordaindu ere, orduan ordaindu beharko dira. Prezia 12 euro da.

ARRASATE

### > Zabalik dago tenis eta igeriketa eskoletan ize- na emateko epea

Mojategiko tenis pista berrietan izango dira tenis eskolak, 15 urtetik gorakoendako. Astelehenean eta eguztenetan, 16:15ean izango dira eskolak; martitzen eta eguztenetan, berriz,

17:30ean, 18:30ean eta 19:30ean. Prezia da 44 euro baziideendako eta 54 gainerakoendako. Igeriketari dagokionez, bakarkako eskolak izango dira, onuradunak aukeratzen duen ordutegian, betiere, 07:15etik 17:30era bitartean. Hileko prezioa da 31,95 euro, baziide direnendako, eta 41,95, gainerakoendako.

BERGARA

### > Jardun elkarreko koordi- nitzalea behar du

Osintxuko Gaztañatan kultura egitarauaren barruan, eta antolatutako azken ekitaldi gisan, Jon Arretxe bidaia eta idazle ezagunaren emanaldia egongo da hilaren 30ean, egubakitzua, Osintxuko ludotekan, 19:00etan. *Amazonia, oihana eta jendea* delako diapositiba emanaldia egingo du.

DEBAGOIENA

### > Txikilandian parte har- tzeko begiraleak behar ditu Txatxilipurdik

Urtarrilaren 2tik 5era bitartean ospatuko da Txikilandia, Arrasaten, eta harako dei egin du Txatxilipurdik aisiaaldi elkartea. Interesatuek izena eman dezakete abenduaren 10era bitartean, Txatxilipurdiren egoitzan. Curriculuma eta argazkia eraman behar ditutte hautagaiak. Ohiko begiraleendako baldintza bakarra, berriz, izena ematea da.

943 25 05 01  
goienkaria@goienna.com

## etxeko leihotik



Oihane Agirre > GOITBko programazio zuzendaria

## Ikuskizuna etikari gailendu zaio

**A**tzo izan zen Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna eta datuek oilo ipurdia era-giten didate. EAEn egunero hamaika emakume ausartzen dira salaketa jartzera; beste askok, oraindik, indarkeria sufritzen jarraitzen dute. Espainiako Estatuan 69 emakumezko hil dira, tartean Svetlana gazte errusiarrak. Telezaborraren adibide garbia da *El Diario de Patricia* saioa. Saio honek oso gai delikatuak azaleratzen ditu, tartean Svetlana gaztearena. Aurrez jakin barik, bere erasotzailearekin elkartu zen telebistako platoan, zuzenean. Horrek berarekin ezkontzeko eskatu zion, belauniko eta eraztun eta guzti. Svetlanak aurre egin zion bigarren aldiz (urrez salaketa jarrita zeukan) bere erasotzaileari, kameren aurrean ezezkao emanda. Bost egun geroago, lepoa moztu zion ustez bere erasotzaileak. Saioa bada, zeharka, hilketa honen erantzule. Saioko arduradunei beste profesionaltasun bat exijitu behar zaie. Orain ikuskizunak bakarrik balio du, beste guztiaren gainetik. Telezaborra hor dago, eta hor egongo da, ikusleek horrela nahi badugu. Patricia, nik behintzat ez zaitut ikusik!

**"Telezaborra hor dago eta hor egongo da, ikusleek horrela nahi badugu"**

- > **Tratu txarrak**  
jasaten dituzten lautik bat atzerritarra da EAEn. Hala ere, paperik gabe dagoen atzerritar asko ez dira salaketa jartzera ausartzen, kanporatu egingo dituzten beldur.
- > **Sabina** Arrasaten bizi da, bakarrik. Lau seme-alaba eta senarra Bolivian utzi zituen. Miquel Beneitek eta Otavio Sendoyak dokumental batetan jasoko dute bere bizitza. Laster, GOITBn.

## debagoiendarrak kanpoan

Arantxa Uribarri > Oñati

## "Gasteiz herri baten moduko da, baina hiri baten abantailak ditu"

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Lana zela eta joan zen orain dela 40 urte Gasteizera; baina Oñati ez dauka ahaztuta, ezta bertako senideak eta gizarteko lagunakere. Hala ere, hiriko bizimodura ohi du, eta ez litzateke bueltatuko.

Urte asko dira Gasteizera joan zinela, ezta?

Orain bete dira 40 urte: azaroaren 20an etorri nintzen lehenengo; orduan, Tximist lantokia zen oraingo Cegasa, eta lanera etori nintzen. Hasieran, astelehenean etortzen nintzen, astea Gasteizen pasa eta Oñatiara buelta egubakoitzetan. Aitak ere enpresa berean egiten zuen lan, eta gurasoak Gasteizera etorri ziren bizi izatera, eta bertan geratu ginen. 1973an ezkondu eta hementxe jarraitu dut.

Asko aldatu zen zure bizimodu Oñatitik joan zinenean?

Bai. Une hartan, gogorra izan zen. 20 urte neuzkan, inoiz Oñatitik kanpora irten gabea... Gainera, Gasteiz oso urrutu ikusten genuen; ez distantzian, baina ez genuen harako joerarik. Erosketak egitera Donostiarra edo Eibarre errazago joaten ginen.

Aldaketarik nabarmenenak zertan sumatu zenituen?

Giroa guztiz ezberdina zen, ez zen gaur egungo Gasteiz. Etxean, euskaraz oihitura nengoentzat, eta Gasteizen euskalarik nekez entzuten zen. Lehen bi urteetan, hirian ez nintzen askorik integratu; lanegikoa jendearekin egoten nintzen, eta gero, egoitza batean bizi nintzen. Gerora, alfabetatzeko talde batean hasi nintzen.



GOIENKARIA

### Tximistetik Cegasara

Oñatiko Tximist lantegian hasi zen orain dela 45 urte, eta 40 urte bete ditu berriki Gasteizen, Cegasa taldean.

Gaur egun, zertan diharduzu?

Cegasa taldean dihardut. 40 urte daramatzat Gasteizen, baina, taldean, 45. Cega Logistics-en administrari lanetan nabil.

Oñatirekin harremanik oraindik badaukazu?

Gaztetako lagunekin ez dut harremana eten; urtebetetzeak direla, baziari edo afarirenean bat dela... Familiarekin ere, batik bat, senarrarenarekin, gorde dut harremana. Izan ere, nire aldekoak Gasteizera etorri ginen, eta ahizpa ere hemen bizi da.

Sarritan etortzen zara Oñatira?

Joaten naiz, bai. Izugarri gustatzen zait, gainera. Ni han bizi nintzen garaitik, aldatuta dago guztiz, etxe berri asko egin dituzte, baina herri polita da oso.

Bueltatuko zinateke Oñatira?

Bizi izatera, orain, ez. Gasteiz oso gustura nago. Gasteiz herri baten moduko da, baina hiri baten abantailak, zerbitzuak... ditu, eta lasaia ere bida.

Zerbaiten falta sumatzen duzu?

Ez. Zerbait gertatzen bida, badut komunikazioa bertako jendearekin. Gainera, jaietan, familiako baziari baten aitzakian... joaten naiz Oñatira. Urte asko pasa direnez herritik joan nintzea, gertatzen zait, batzuetan, jende gaztea ez ezagutzea, baina, gaintzean, bizimodua Gasteizen daukat antolatuta.

Oñatiarrei zer esango zenieke?

Jarraitzeko orain artean bezala, eta herria mantentzeko eta, ahal bida, hobetzeko.

**kale inuesta****Zirkulazioko hutsegiteak orain gogorrago zigortuko dituzte; neurri eraginkorrap dira?**

**Agustin Elortza**  
Langilea  
Oñati



**Belen Gobea**  
Langilea  
Oñati



**Oihana Urkia**  
Langilea  
Oñati



**Ana Larrea**  
Langilea  
Oñati

Ez dut uste horrelako neurriak eraginkorrap izango direnik. Isunak areagotu dituzte, puntukako baimena ere jarri zuten, baina ez dut uste neurri horiek ezertarako balio dutenik. Kartzeala ez da eraginkorra.

Baliteke neurri berri horiek eraginkorrap iza-tea. Horretarako, baina, zaintza neurriak ere are-agotu egin beharko dituzte. Hala ere, zirkulazio hutsegiteak kartzelarekin zigortzea larregi iruditzen zait.

Nik uste dut, kasu batzuetan, kartzela zigo-rria beharrezkoa dela; batez ere, auto gidari baten erruarengatik pertsona bat hil denean. Hala ere, ez dut uste neu-rrri hauek eraginkorrap izango direnik.

**ustea k uste**

Mireia Bikuña

**Din, dan, don,  
din, dan, don,  
Eguberri on!**

Hilabete falta da Gabonak iristeko. Bada, aspalditik dago Gabon giroa toki guztietan. Gure etxearen, orain-dik ez dugu turroirik eros, turroizaleak ez gara-eta. Edozelan ere, supermerkatuetan, aspalditik dago turroia erosteko aukera. Halako supermerkatu batean lan egiten duen lagun batek esandakoaren arabera, urriaren 12rako, turro eskaera guztia biltegian egoten da; eta azaroaren hasierarako, salgai, supermerkatuetan. Halaber, jostailuek ere toki handia hartzen dute saltokietan. Turroia oraindik ez dugu probatu, bada, jostailuak ikusten ibili naiz. Nire etxeko txikiak, dagoeneko, idatzi dute Olentzeroendako gutuna, eta oso luzea, gainera. Nik oraindik ez dut nirea idatzi. Eta zuek, zer eskatuko diozue Olentzero?

ARRASATE

**> Garibai itxita dagoela dioen kartelik ez Garibain bertan**

Zirkulazio aldaketa asko egin dituzte Arrasate erdialdean. Herri-tar batek hobetzeko zerbaite aurkitu du: "Araba etorbidetik Garibairantz autoz joanez gero, Garibai autoendako itxita dagoela dioen kartela ikusiko dugu biribilean. Hala ere, aurrera egin daite-ke orain, Arrasate pasealekurantz hartzeko; eta baliteke bateren bat konturatu ez izana biribilean debeku seinalea zegoela eta, bide-gurutzera iritsita, Garibain sartzea. Uste dut ez litzatekeela ezer kostatuko Garibai sarreran bertan ere seinalea jartzea".

OÑATI

**> Zakarrontzi berriak behar dira Olakuan**

"Aspaldiko kontua da, baina horregatik ez du arreta gutxiago merezzi. Garapen Iraunkorraren garai honetan: Olakua auzoko zakarrontzi batzuk zaharkituta daude, eta gutxi batzuk, apur-tuta ere bai. Badakigu jende askok, zoritzarrez, kale osoa duela zakarrontzi gisan, baina nik eta beste askok, ez; horregatik, gan-razko zakarrontziak behar ditugula uste dut", dio oñatiar batek.

BERGARA

**> Hostoak, euria egiten duenean, arriskutsu**

Bergarar batek deitu digu, Santa Marinako parroquia inguruau, joan den astean, "hosto pila izugarria" egon zela esaten. "Ez diote inori traba egiten, euririk egiten ez badu; orduan, inor labaindu egin daiteke, hostoa zapalduz gero", ohartarazten du.

**zorroztaila**

Elena Laka

**Printze urdina**

"Sentimenduzko heziketari buruzko klown parodia" taularatuko dute gaur (...), Virginia Imazek zuzendu du (...). Pupika eta Puxika pailazo ameslariak dira. Bere "printze urdina" noiz agertuko den itxaroten daude. (...) Hala, hainbat mitoren inguruan hitz egingo dute, ironiarekin".

Berria > 2007-11-25



H amabost urterekin, erromantizismoak pertsona gogorren era-giten duen garai horretan, "las niñas ya no quieren ser prin-cesas" kantatzen genuen Sabinarekin. Ez naiz ausartzen esa-ten ordurako printze urdina barne-barneko pentsamenduetatik era-bat baztartuta geneukanik. Eta printze urdin bat ondoan izateko esperantza galdua ez genuen arren, argi geneukan ez genuela prin-zesa izan nahi, bere bizitzaren jabe diren emakumeak baino.

Beste mende batean gaudie, garai haietatik geratzen den ia baka-rra praka pitilloak dira, eta horiek ere, eraberrituta. Baino umeei ekarri diedan jostailu-katalogo dotorean, neskatala guztia print-zesekin dihardute jolasean. Neskatila nerabiei nobioa izateak pres-tigioa ematen die, euretariko ama baten esan kezkatsuetan. Ondo-rioa: gizarteko bufoiek isipilu konkaboa ipintzen digitela, printze urdinarena ateratzen da, eta errealtitatea desitxuratura islatzen da. Desitxuratura, baina errealtitatea.

Errealitatea baita neskek prin-tze urdinaren zain segitzen dihar-dutela. Planta oneko mutila, oroja-kile, egoera ororen konpontzaile. Errealitatea da zenbat zalantza eta autoestimu falta sortzen dituen li-luratze modua ez topatzek, nola banatzen den desira multilenzat, maitasuna neskentzat.

Gure hamabost urteetako praka pitilloak algodoi hutsezkoak ziren; gaur egunekoak, osteria, elasti-na ere badaukate. Hala egunera-tu beharko litzateke printzegai berriei egin beharreko galdera zerrenda: guapoa da? Ondo ematen ditu musuak? Eta, etxeko lanak eta umeen zaintza partekatuko ditu? Nire lanbideari ez dio oztoporik ipiniko? Nire lagunekin irteteari eta nire aisialdiari ez dit trabarik jarriko? Ez da saiatuko nire bizitza kontrolatzen? Alegia, elastina piska bat ipiniz gero betiko printze urdinarentzako betebeharretan, harremanak askoz erosago. Musu bana benetako printze urdinei, maite gaituztelako gure ondoan daudenei, maila berekotzat gauzkatenei. Eta printze urdin bila dabilenarentzako, kontuz paper arrosa hutsa baino ez diren horiekin. Bizitza askoz errazagoa baita erromantizismoak prakti-zismoan oinak ondo errotuta dauzkanean.

**"Errealitatea da  
neskek printze  
urdinaren zain  
segitzen dutela"**

**"Musu bana maila  
bereketzat  
gauzkaten benetako  
printze urdinei"**

**Goienkaria**

Argiratzalea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendaria Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erradaktore burua Leire Kortabarria Erradakzioa Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirre Aldegi, Maier Uranga Oinarritzko diseinua Goi Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gauntzaran

EGOITZA NAGUSIA  
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Fax: 943 25 05 13  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otañor Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Fax: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Fax: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0084/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundia


**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**

# Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13  
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> ARRASATE  
Bihar zabalduko dute Zerkaosteta kalea, alde zaharreko ordutegi berberarekin > 10



> OÑATI  
Irisgarritasun planaren bigarren atalak Portu, Bakardadeko Ama eta Moiuan eragingo du > 12



> ELGETA  
Bigarren eskuko denetariko gauzen azoka antolatu dute abenduaren 15erako > 14

BERGARA > JAIA

## Euria egin arren, jendea pozik ibili zen patata azokan

**PINTXO LEHIAKETA** Sirimiri tabernak irabazi zuen lehenengo saria zapatuan

**RAFAEL GARITANO-ALDAETA** Santa Marinako abade izan zenaren omenez egin zuten azoka

**MAIER URANGA** > BERGARA  
Bergarako San Antonio ingurua jendez eta patataz bete zen zapatu goizean, izan ere, On Rafael Garitano-Aldaeta Bergarako abade izandakoaren bigarren men-deurrena dela eta antolatu zuten patata feria. Eguraldiak ez zuen asko lagundu, euria egin zuen goiz guztian zehar, baina jendea, aterkia edo txamarra hartuta, aldarte onean ibili zen.

Goizeko hamar eta erdietan hasi zuten azoka, eta ekintza ugari ospatu zitzuten, herritar askoren parte-hartzearekin.

**LEHIAKETA GASTRONOMIKOAK**  
Gure Ametsa elkartean egin zitzuten patata barietateen bi katak, bata 11:30ean, eta ordu bete geroago, bestea. Honetaz gain, bi lehiaketa gastronomiko egin zitzuten, patata feria aitzakia hartuta; batetik, patatak saltsa berdean lehiaketa, Bergarako elkarteen artean jokatu zutena. Sei elkartek eman zuten izena eta guztien artean, Lasai Toki elkartek irabazi zuen; bigarren, Umore Ona, eta San Migelpe hirugarren geratu zen. Pintxo lehiaketa izan zen bestea, herriko tabernek parte hartu zuten, eta esan beharra dago uste baino taberna gehiagok eman zutela izena eta, azkenean, sari banaketa espero baino gehiago luzatu zela. Sirimirik irabazi zuen hau, eta Etxalar eta Ariznoa izan ziren bigarren eta hirugarren.

Erantzun ona eman zuten herritarrek; janaria tartean iza-tzen den gehienetan bezalaxe,

pozik ibili ziren goiz guztian. Artisau eta gastronomia produktuen postuak eta patata barietateen erakusketak ere ikusteko aukera egon zen Bergaran.

Ordu biak aldera jo zuten feria bukatutzat, datorren urtekoan pentsatzen hasita; izan ere, lehenengo feria izateko, antolatu zutenek espero baino hobeto joan zela esan ziguten. Jendeak interesgarria iruditu zitzaiela aitortu zigun.

**ON RAFAEL GARITANO**  
Rafael Garitano-Aldaeta Argantzunen jaio zen, 1736. urtean; gurasoak Bergara eta Soraluze-koak izanda, ibarrera etorri zen abade. Santa Marina Parrokiako abadea izan zen 21 urtez, 1784ko abenduaren 21ean hil zen arte, 48 urte baino ez zituela.

On Rafael aski ezaguna izan zen hainbat ekintzagatik, Kalarriko elizbarrutiko bikarioen aurka bere abadetza defendatzeko egindako ikerketengatik, edo pulpitiuk Espainiako erregearen agindu eta xedapenak ezagutarazterra ukatu zelako, besteak beste. Baina, batez ere, pobrezian bizi ziren bere eliztarrak defendatu zituelako, parrokiaren jabe laiko zen Oñatioko kondeari aurre eginez, egin zen ezagun abadea. Pobreziari aurre egiteko, patatarri eta bere kontsumoari buruzko ikerketak eta experimentuak egiten ibiltzen zen. Horren adibideak Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen aktetan daude jasota. Badu lotura, hortaz, patataz azokak abade harekin.



PRESTATZEN Elkarteetakoek patatak saltsa berdean prestatu zitzuten.

JOSETXO ARANZABAL



JENDEA Eguraldi txarra zegoenez, jatekoen berora jende asko joan zen.

JOSETXO ARANZABAL

PARTE-HARTZAILEAK



Javier  
Neiker-eko langilea

Neiker-en, patataz gain, beste laborantza espezie batzuk ere aztertzen ditugu, erremolatxa, edo zerealak, esaterako. Bi egoitza ditugu, bata Derion eta bestea Arkauten, eta 200 langile baino gehiago ari gara hau guztia aztertzen. Hain zuzen, 1933az gerotzak ari gara patataren inguruan ikertzen.



Maite  
Euskal Txerriak

Bidegoitik etorri naiz. Gizona ibiltzen da normalean, baina garai hauetan, feria asko daudenez, niri ere tokatu egiten zait. Euskal Txerriaren egiten dugu lan, txorizoa eta saltxitxoa egiten hasi ginan, baina dagoneko urdaiazpikoa eta txerri hankak ere saltzen ditugu. Oso naturala da gure produktua.

HIRIGINTZA &gt; ZERKAOSTETA KALEA

# Bihar zabalduko dute Zerkaosteta kalea, alde zaharraren ordutegi berarekin

Astelehenetik zapatura goizez izango da zabalik; martitzen arratsaldean ere zabalduko dute, baina pare bat orduz

**UBANE MADERA** > ARRASATE Bihar, martitzena, zabalduko dute Zerkaosteta kalea zirkulaziora, kale hartako obra nagusiek bukatu dituzte-eta. Hori bai, Zerkaostetako zirkulazio arauak ez dira izango orain arteko berak. Hala jakinarazi du Udaleko Obra eta Zerbitzu sailak.

**ALDE ZAHARRAREN BARRUAN** Sail horrek adierazitakoaren arabera, Zerkaosteta herriko alde zaharraren barruan kokatu dute; hau da, alde zaharraren zati moduan konsideratzen dute. Hala, kalea zirkulaziora zabalduko dute alde zaharreko ordutegi berarekin. Horrek esan gura du zabalik egongo dela astelehenetik zapatura, goizez, eta martitzenetan, arratsaldez ere zabalduko dute, 18:00etik 21:00etara. Jai egunetan, berriz, itxita izango da.

**BUKATZEKO DAGO** Baino, kalea bihar zabalduko duten arren, Zerkaostetako obrak ez dituzte bukatu; izan ere, Iturbide egoitzaren ondoko pasabidea ez dute lortu garaiz bukatzea.



NORANZKOA Zerkaosteta kalearen noranzkoa aldatu egin dute, eta orain ezingo da Kontzezino kaletik sartu.

U.M.

## SALBUESPENA

### Zerkaostetako bizilagunek eta garajea dutenendako, salbuespna

Zerkaosteta kalean ezarriko dituzten zirkulazio arau berrietan, salbuespenak izango dira. Hain zuen ere, Zerkaostetan garajea dutenek eta kale hartako bizilagunek aukera izango dute kale horretara sartzeko gainerako herritarrendako hura itxita dagoenean; hau da, jaietegunetan ere sartu ahal izango

dira, eta aste barruan, arratsaldez, ere bai. Horrek batera, horiek guztiek aukera izango dute, ere, Kontzezino kaletik sartzeko. Gainerako ibilgailu guztiek, berriz, Maalako Errebala erabili beharko dute Zerkaostetara iristeko, alde zaharreko gainerako kaleetara iristeko moduan.

GIZARTEA &gt; HIRUGARREN ADINA

## Etzi, eguztena, omenaldia egingo diete 90 urtetik gorakoei

Abaroako bazkideei egingo diete omenaldia; 90 lagun inguru daude ekitaldira deitura

U.M. &gt; ARRASATE

Etzi, eguztena, Abaroan hitzordua egin dute 90 urtekoei eta adin horretatik gorako bazkideei omenaldia egiteko; 12:00etan hasiko da omenaldia, Abaroako bosgarren aretoan.

Urtero egiten dute hitzordu hori Abaroan, baina, aurten, sekula baino jende gehiago dago deitura: "Aurten, 90 bat lagun ditugu zerrendan; iaz, 80 bat izan ziren. Urteik urter, kopuruak gora egiten du", adierazi du Jose Rivierek, Abaroa elkarteko presidenteak. Omenaldira deitutako lagun horien artean nagusienak 1908an jaiotako bi emakume dira; bata, 1908ko abuztuko, eta bestea, abenduko.



BAZKIDEAK Omenaldia izango da Abaroako bazkideendako; argazkian, elkarteko hainbat erabiltzaile, karta-jokoan.

U.M.

Rivierek adierazitakoaren arabera, oparitxo bana emango diete nagusiei. Halaber, azpimarratzen du, oparia jasotzeko, beharrezko

izango dela bazkide txartela aurkeztea, behar bezala eguneratuta. Omenaldia jasoko duten pertsona nagusiez gainera, etziko eki-

taldira gonbidatu dituzte, baita ere, Arrasateko Udaleko (Gizarte zerbitzuetako) eta elizako ordezkariek.

> GOBERNU BATZARRA  
**Kultura eta aisiaaldi kontu ugari aztergai, gaurko batzarrean**

Astelehenero moduan, udal gobernuak gaur batzarra egingo du, 15:00etan. Obra, kultura eta aisiaaldi kontuak daude aztergaien zerrendan.

Obrei dagokienez, besteak beste, Santa Barbarako argiteria berritzeko proiektuaren adjudikazioa proposatuko dute, eta Monterron jauregiaren parean, oinezkoendako zebrabide berria egiteko proiektua ere bai.

Kultura eta aisiaaldi kontuei dagokienez, berriz, Arrasate Herri Eskolakoen gaztaiña erre festa (azaroaren 30ean), San Frantzisko Xabier jaia (abenduaren 3an) eta, besteak beste, aurtengo Akordeoi Lehiaketak ere izango dituzte berbagai gobernu kideek.

> ELKARTASUNA  
**Harreman erakundeak esker ona adierazi gura du**

Gobernuz kanpoko Harreman erakundeak joan den asteburuan bidezko merkatartzaren kanpaina egin zuen Eroski hipermerkatuan, hain zuzen ere, saltoki horren laguntzarekin. Saltoki berezia ipini eta bidezko merkatartzan oinarritutako produktuak eman zizkieten herritarrei, probatzeko eta erosteko.

Orain, eskerrak eman gura dizkie ekimen horretan parte hartu zuten guztiei -bereziki, Eroskiri, laguntzearren-, eta gogorarazi gura dute, orain, Gabonak datozena, oparitzeko produktu mordoa daudela Eroski hipermerkatuan ipinita duten ohiko saltodian; "modu horretan elkartasuna ere oparitzen da", diote elkartekoek.

> OSTALARITZA  
**Pizzeria frankizia bat etorriko da Arrasatera**

Pizzamovil kateko frankizia irekiko dute Arrasaten, Leintz ibarrean etxez etxeko banaketa zerbitzua ere emanago duena. Horrez gainera, jolasparkea ere zabalduko dute pizzerian bertan. Hala konfirmatu diote Goienari negozioa irekiko dutenek, egungo Daglas bideoklubeko ugazabek. Udaberrirako zabaltzea gura dute negozioa eta, frankiziarekin tratua eginda badaukate ere, lokala zein izango den erabakitzeko daukate. Kontzezino kalean edo San Andresen irekiko dute. Etxez etxe banatuko dituzte pizzak Arrasatetik Eskoriatzara bitartean. Autonomia Erkidegoko lehenago izango da Arrasateko.



FILMAK Babe txerritxoan hirian da katalogoa jasotzen den filmetako bat, 4 urtetik gorakoendako.

GOIENKARIA

HEZKUNTZA > GAZTETOENDAKO AISIALDIRAKO PRODUKTUAK

# Euskarazko produktuen katalogoa kaleratu dute

Gabonen atarian, euskarazko jostailuak, bideoak, liburuak eta abar ezagutaraztea da helburua

EDU MENDIBIL > BERGARA

Azken urteetan egin bezala, euskarazko produktuen katalogoa argitaratu du Bergarako Udalak, beste hainbat udalekin elkarlanean. Jostailuak, jokoak, liburuak, aldizkariak, bideoak, musika, informatika produktuak, film arrakastatsuak eta abar agertzen dira aipatutako katalogoan.

Arduradunen arabera, euskaraz eskolaratzearekin bakarrak ez da ziurtatzen umea euskaldun oso izango denik: "Umearen aisialdia oso importantea da euskara bereganatzeko, eta gurasoei zera adierazi nahi diegu: aukera handiak daudela umeari euskal heziketa emateko, nahiz eta haien euskaraz ez jakin", diote.

AISIALDIA, EUSKARAZ

Gauzak horrela, ume eta gaztetxoei aisialdiko euskarazko produktuen eskaintza ezagutzera ematea da helburua, euskarazko produktuen eskaera ugaltzeko, merkatua dinamizatzera eta indartuz.

Katalogoa herriko eskoletan banatuko dute datozen egunotan. Era berean, Interneten ere badago katalogoaren gaineko argibide gehiago: [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org). Udaletxean edota Kultur Etxean ere izango dute eskuragarri.



## Mizpirualden bazkaria izan zuten zapatuan

Mizpirualdeko Astea amaitzean, bertako egoiliarrek bazkaria izan zuten zapatuan. Aurretik, meza entzun zuten erresidentziako kaperan. Ohi denez, Alai Taldeak hainbat kantu eskaini zituen ospakizunen azken jardunaldian. Bazkarian 70 lagun inguru elkartu ziren; tartean, Mizpirualdeko egoiliarrez eta langileez gain, Antzuolako, Elgetako eta Bergarako Udaletako

ordezkariak eta erretiratuen elkartekoak egon ziren. Bazkalostean, dantzaldia izan zen, eta jarraian, astean zehar jokatutako txapelketetako sari banaketa eta oparien zozketa egin zuten. Azken urteotan, azaro aldera, ospakizun astea egiten dute erresidentzian, helburua neguaren atarian giroa piztea dela. Mizpirualde Egoitzan 106 lagun bizi dira gaur egun.

GIZARTEA > SALAKETA

## Puntu Berde Mugikorrak atzean utzitako zaborra

Azoka ingurua poltsaz eta edukiontziz beteta geratzen dela salatu dute hainbat herritarrek

bat herritarrek. Horietako baten arabera, "norbaitek haritu beharko luke, behin Puntu Berde Mugikorra pasatu eta gero, ingurua garbitzeko ardua. Azken aldiz etorri zenean, ingurua erabat zikin geratu zen hurrengo egunetan".

ETXEKO HONDAKINAK

Sukaldeko olio erabiliaz gain, fluoreszenteak, bateriak, toner kartutxoak, erradiografiak, pilak, telefono mugikorrak, termometroak, etxe tresna elektriko txikiak, motore olioak (ontzi itxietan), pinturak (ontzi itxietan), disolbatzaileak (ontzi itxietan), garbitasun produktuak (lixiba, amoniakoa,...), pestizidak eta aerosol ontziak jasotzen ditu Puntu Berde Mugikorrak. Datorren zapaturuan, abenduaren 1ean, izango dugu berriro azokan, ohiko ordutegian.

E.M. > BERGARA

Hamabostean behin, sukaldeko olio eta bestelako hondakinak jasotzen datorren Mankomunitateko Puntu Berde Mugikorra dela eta, hainbat herritarren kexak izan dira azken egunotan.

Esan bezala, bi zapatutik behin etortzen da Puntu Berde Mugikorra Oxironoko azokarra, 09:00etatik 13:00etara. Behin alde egin eta gero, ingurua poltsaz eta edukiontziz, plastikozkoak zein beirazkoak, beteta geratzen dela salatu dute hain-



PUNTU BERDEA Etxeko hondakinak bakarrik jasotzen ditu.

GOIENKARIA

> UDALA  
**Ohizko batzarra izango da gaur udaletxeen**

Gaur, astelehena, ohizko batzarra izango da udaletxeen, 19:30ean. Aztertuko dituzten gaien artean, San Martin Agirre Eskolako Guraso Elkartea eta EAJ eta EAK bozeramaileek aurkeztutako eskaera dago. Zortzi puntu dira gai zerrendan, eta, ondoren, erregu eta galderetarako txanda egongo da.

> DEIALDIA  
**Odol-ateratzeak izango dira etzi, Seminarioan**

Bergarako Odol Emaileen Elkartea jakinarazi duenez, aurtengo azken aurreko odol-ateratzea izango da etziko, eguztenea. Ohi denez, Seminarioko lokalean izango da, 18:30ean. Urteko azken odol-ateratzea abenduaren 19an egingo dute, ordu eta toki berean.

HIRIGINTZA &gt; IRISGARRITASUNA

# Irisgarritasun planaren bigarren fasea, abian

Portu, Bakardadeko Ama eta Moiua kaleetan egingo dira bigarren zatiko lanak

Enkante bidez emango diren lanen aurrekontua, gehienez, 323.000 eurokoa izango da

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Oñatiko Irisgarritasun Planak pauso berri bat beteko du. Oztopo arkitektonikoak kendu eta herria oinezkoendako egokitze-ko planaren bigarren zatia egi-tea onartu berri du Udalak. Hala, Portu, Bakardadeko Ama eta Moiua kaleak hartzen dituen zatia enkante bidez ematea ados-tu du tokiko gobernu batzarrak.

Portu, Bakardadeko Ama eta Moiua kaleetako oztopoak ken-tzeko, Udalak onartu duen gehie-nezko aurrekontua 323.000 euro-ko da. Halaber, lanak sei hilabeteko epean egin beharko dira. Hala, interesa duten enpresek, deialdia Gipuzkoako aldizkarian kaleratzen den egunetik hasita, 13 eguneko epea izango dute eskaintzak aurkezteko. Lanak proposamen merkeena egiten duten enpresak egingo ditu.

**ESPAZOIAK**

Moiua kalearen hasieran, Bakardadeko Ama eta Portu kaleetan egingo diren lanen artean, aipa-garriena espaloien zabalze orokorra izango da, gurpildun aulkiek doazentzak aintzakotzat hartuko dira-eta. Halaber, Mai-bi denda inguruau, Bakardadeko Ama kaleak eta Errekaldetik datorren bideak bat egiten duten lekuau, segurtasun baranda bat jarriko da. Gainera, autoek oinezkoen pasabidea oztopatu ez deza-ten, hainbat aparkaleku mugatzeko elementuak jarriko dira.

Halaber, hiru kaleetako hain-bat zebrabide eta ibilbidean dau-den kale-argi batzuk lekuz alda-tuko dira. Lope Agirre kalearen hasieran eta bukaeran, platafor-ma moduko ibilbideak egokituko dira, eta horretarako, zoladurak, pabimentuak, erabiliko dira.



**PORTU KALE** Argazkian dagoen zebraidea lekuz aldatuko da. Euskadiko Kutxa eta Santander banketxearen aurreko espaloia zabaldu egingo dira. Hortaz, Santander banketxearen aldeko aparkalekuak kendu egingo dira.

MIREIA BIKUÑA



**LOPE AGIRRE** Portu eta Lope Agirre kaleek bat egiten duten lekuau, plataforma moduko oinezkoendako ibilbide bat egokituko da. Halaber, Euskadiko Kutxaren atzoko espaloia zabaldu egingo da.

MIREIA BIKUÑA

UDALA &gt; EGUTEGIA

## Arrikrutz izango da udal egutegiaren irudia

Datorren urteko egutegiaren 1.200 ale gertatuko ditu Udalak herriko enpresa, ikastetxe eta bulegoetan banatzeko

M.B. &gt; OÑATI

Datorren urterako Udalak kaleratu asmo duen egutegiaren ardatz nagusia Arrikrutz izango da. Hala, egutegia irudikatzeko, Oñatiko Turismo eta Garapen Agentziak ateratako argazkiak erabiliko dira.



ARRIKRUTZ Kobazuloko argazkiekin ilustratuko dute egutegia.

GOIENKARIA

**1.200 ALE**

Datorren urteko egutegiaren 1.200 ale kaleratuko dira. Hala, 600 ale, gutxi gorabehera, herri-

ko ikastetxe, enpresa eta bulego publikoetan doan banatuko dituzte. Gainontzekoak salgai jarriko dituzte turismo bulegoan.

## &gt; HITZALDIA

### Elikadura orekatuaren gaineko hitzaldi-tailerra Herri Eskolan, Amaia Diaz dietistaren eskutik

Errekalde Herri Eskolak antolatuta, elikadurari buruzko hitzaldi-tailerra egingo da etzi, eguztzena, ikastetxeko areto nagusian. Eskolako jantokiko menuak aztertu, egokiak diren azaldu, eta umean dieta orekatzeako aholkuak emango ditu Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak. Halaber, elikaduraren gurpila lagun duela, eguneroako menuek izan behar dituzten ezaugarriak azalduko ditu adituak. Gainera, garaiko janari osasuntsuak aukeratzen eta prestatzen ikasteko aukera ere egongo da. Elikadura orekatuaren gaineko hitzaldi-tailerra irekia da, interesa duten herri-tar guztiedako.

## &gt; IKASTAROA

### Lan taldean egoki lan egiteko bete beharreko baldintzak aztergai dira ikastaro batean

Lahar Eskuartze Sozialerako Elkarteak antolatuta, *Komunikazioa eta Lantzardearen Metodologia* izeneko ikastaroa egongo du Oñatin. Irantz Gabilondo irakasleak emango duen ikastaroa gaur hasi eta egubakoitzera arte izango da.

Ikastaro horretan, lantzardean eragina duten elementuak identifikatzen saiatuko dira. Halaber, lantzardean egoki lan egiteko bete beharreko baldintzak ere zehaztuko dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko sailak diruz lagundu du ikastaroa. Hortaz, doanekoa da.

ARETXABAleta > UDALA

# Ekarpenetara zabalik dago udal gobernuaren programa

"Programa irekia, aldakorra eta ekarpenak eskatzen dituena" aurkeztu zuten

Lau urterako, 58 milioi euroko inbertsioa aurreikusi dute; diru iturriak bilatuko dituzte

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABAleta  
Egubakoitzean aurkeztu zuten Aralarrek eta EAk datozen lau urteotarako adostutako gestio programa. Eusko Abertzale Ekin-tzak egindako ekarpen batzuk ere jaso dituztela jakinari zuten, "programaren hasieran egon zirelako".

**GAINERAKO ALDERDIEI BANATUTA**  
"Programa irekia, aldakorra eta ekarpenak eskatzen dituena da", azaldu zuen alkateak. Horregatik, gainerako alderdiei banatu diete, eta 15 bat egun izango dute, alderdian aztertu, hausnartu eta ekarpenak egiteko: "Ardatz nagusien bat etorriz gero, horiek ere txertatuko ditugu programan", esan zuen alkateak.

Udaleko lau arloak kontuan hartuta garatu dute: bizierritzea,



AURKEZPENA Lore Martinez EAko zinegotziak eta Inaxio Garro alkateak aurkeztu zuten gestio programa egubakoitzean. M.A.

garapen iraunkorra, bizi kalitatea eta gizarte ongizatea. "Bizi kalitatearen eta garapen iraunkorraren eredu lantza izango da erronka handienetako, udalerriaren hazkunde kualitatiboa bultzatzea irizpide ekologikoei jarraituta eta ingurumena errespetatuta", argitu zuen Inaxio Garro. Datozen lau urteotako inbertsio garrantzitsue-

nak ere aipatu zuen: kirol etxea, saneamendu lanak plazan eta Mitarte eta Santa Kurtz kaleetan, osasun etxe berria, udaletxea bir-moldatzea, enpresa sarea dinamizatzea eta dokumentazio zentroa Iraban baserrian. "58 milioi euro izango dira, eta diru iturriak bilatu beharko ditugu: Aldundian, Jaurlaritzan..."

**GAUR, OHIKO OSOKO BILKURA**  
Gaur, astelehen, osoko bilkura egingo dute 18:00etan. Hainbat gai landuko dituzte, tartean, plaza-ko saneamendu lanen esleipena edo gizartearen mesederako lanak eta konpontzeko zeharkako prestazioak betetzeko hitzarmena, arau-hauste jakin batzuk egin dituztenendako.

ESKORIATZA > UDALA

## Zirkulazio ordenantza eztabaidatuko du osoko bilkurak, isunak Udalak kudea ditzan

Bidegorria eta Ezker Batua-Berdeek eta EAEk aurkeztutako mozio bana ere berbagai izango dituzte zinegotziek

**LEIRE KORTABARRIA** > ESKORIATZA  
Gai interesgarri asko eztabaidatuko ditu Udalbatzak etzi, osoko bilkuran. Besteak beste, zirkulazioko lege-haustea arautzen dituen ordenantzaz berba egingo dute. Izan ere, datorren urtean hasita, Udalak kudeatuko ditu isunak, eta ordenantza aldatu egin behar da horretarako.

Bidegorriaren gainean Aldundiarekin egin beharreko akordioa ere landuko dute; izan ere, Aldundiak egingo du zati bat, azpiko pasabide bat, hain



BIDEGORRIA Bidegorriaren zati berri batez ere berba egingo dute. ARTXIBOA

zuzen ere. Hitzarmen proposamen bat eztabaidatuko dute.

Horrez gain, Ezker Batuak-Berdeek Emakumeen Aulkako

Indarkeriaren Nazioarteko Egunaren gaineko mozioa aurkeztuko du, eta EAEk, AHTren gaineko beste bat.

ESKORIATZA

## 'Geuria' eskuorriaren zenbakia kalean da

**L.K. > ESKORIATZA**  
Kalean da Udalak herriko familia guztiek argitaratzen duen Geuria eskuorriaren azaroko zenbakia. Udalak ikastetxeetan banatu du dagoeneko, eta Udalaren webguunan ([www.eskoriatza.net](http://www.eskoriatza.net)) ere badago, euskalkian eta euskara batuan idatzita.

**AKATSAK ZUZENDU**  
Eskuorri horren bidez, euskarakaraz txarto erabiltzen diren esamoldeak zuzendu gura dira. Horretarako, hilero, orrian, asko egiten diren bi akats proposatzen dira, txarto eta zuzen nola esaten diren azaldu, eta zenbait ariketa proposatzen dira. Noizbehinka, hizkuntzarekin jolas egiteko tarteak ere badaude.

ARETXABAleta

## Biatoristen prokuradore izendatu dute Eskibel

Orain arte, bikario nagusia zen, eta ardura handiagoko kargua eman diote

**L.K. > ARETXABAleta**  
Goio Eskibel aretxabaletarra Vatikanoan biatoristen prokuratzaile izendatu dute, eta Jose Antonio Lezamari, 1981eko apirilek kargu horretan zegoenari, lekuoa hartzen dio Eskibelet. Orain arte, biatoristen bikario nagusia zen Eskibel; hortaz, mailaz igo dute. Biatoristen zuzendaritzak hainbat arduradun berri izendatu ditu, tartean, Aretxabaletakoa.

Biatorista aretxabaletarra dagoeneko hasi da bere kargu berrirako prestatzen, Teologia eta Zuzenbide Eskola Praktikoan ikastaroak hartzen, datorren apirilera arte.



Goio Eskibel. MIRARI ALTUBE

ESKORIATZA

## Gabonetako marrazki lehiaketa egingo dute

**L.K. > ESKORIATZA**  
Zure Gabonetako Marrazkia izenburuarekin, marrazki lehiaketa eta jaialditxo antolatu du Eskoriatzako Udal Gazteria sailak datorren zapatutako, abenduak 1, frontoian, 16:30ean hasita.

Egitaraua hauxe da: 16:30etik 18:00etara, umeek Gabonetako marrazkia egingo dute; 18:00etan, txokolate-jana izango dute; eta 19:00etan, sariak banatuko dizkiete. 3 urtetik 12ra arteko ume guztiak parte har dezakete, eta hiru adin tartetan banatuko dituzte sariak: 3-5 urte, 6-8 urte eta 9-12 urte.

Umeek ez dute ezer era-man beharrik. Txokolatea hartzeko, beharrezkoa da lehiaketan parte hartzea.

ELGETA &gt; AZOKA

# Bigarren eskuko gauzen azoka, abenduaren 15ean

Diskoak, liburuak, jolasak... materiala abenduaren 13ra arte jasoko dute udaletxean

Eskola Txikien jaiaren barruan, 2005ean, egin zen antzeko azoka, eta arrakastatsua izan zen

**LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA**  
Elgetako Udalak bigarren eskuko gauzen azoka antolatu du abenduaren 15erako. "Gabonak hurbiltzen dabilta eta materia la berrerabilzko aukera eman nahi dugu", adierazi du Rebeka Ubera zinegotziak; "opari berriak erosi beharrean, birziklatu egin daitezkelako".

Etxean ahaztuta dauzkagun discoak, liburuak eta jostailuak udaletxera eramateko dei egin dute. Materiala udaletxean jasoko dute abenduaren 13ra arte. "Diskoak, liburuak eta jostailuak ez diren bestelako gauzak ekartzen baditzte ere, jasoko ditugu", esan du Uberak.

Udaletxeko teknikariek materiala sailkatu eta gauza bakoitzari prezioa jarriko dio-



AZOKA Aurrez ere egin izan dute bigarren eskuko gauzen azoka Elgetan.

ARTXIBOA

te. Azoka abenduaren 15ean egingo da, 11:00etan hasita, Herriko plazan. Salmentekin batutako dirua Mexikoko Ciudad Juarezko emakume elkar-tearendako izango da.

## GAZTELEKUA, MINTZAGAI

Udalak, bestalde, bilera egin nahi du 10-16 urte bitarteko umeen gurasoekin. Gazteleku zerbitzuaz egingo dute berba bilera horretan. Zerbitzu hori enpre-

sa baten esku utzi beharrean, langile bat kontratatzea aztertzen dabil Udalak, eta gurasoen iritzia jaso nahi du. Hitzordua etzirako, eguztena, egin dute, 19:00etan, udaletxean.

ANTZUOLA &gt; AUTOBIDEA

# Beasain-Durangoren bide-trazadura aldatzea eskatu du Udalak

Diputazioari eskakizun hori bideratzea aho batez onartu du udalbatzak

Autobidea eskumako mendi-hegaletik ez joatea da Udalak egin duen eskakizuna

**AINITZANE IRIZAR > ANTZUOLA**  
Ezohiko udalbatzarra egin zuten eguztenean. Hantxe, aho batez onartu zuten Diputazioari eska tza aldatu dezala Beasain-Durango autobidearen bide-trazadura. Oraintxe dihardute behin-betiko proiektua idazten.

Diputazioak Ormaiztegi eta Bergara arteko zatiari zegokion proposamena egin zuen etik, prozesuak luze jo du. Ordutik, Udalak behin eta berriz eskatu dio Diputazioari gauza bera: autobidea ez dadila pasatu eskumako mendi-hegaletik. Aurre-proiektuaren arabera, Goizper eta Lekuberri baseriaren aldeko mendi-hegaletik dator. Ariztiberri baseriaren parean, zubi-bide bat

egingo dute, eta autobidea eskumako mendi-hegalera pasatuko da. Horixe ez egiteko esku du orain Udalak. Pedro Iturbe alkatearen esanetan, horrek kalte handia egingo lieke hango lursai lei eta, ondorioz, inguru horretako baserritarrei. Gainera, Itur bek azaldu duenez, bidegorriaren ibilbide-trazaduran ere eragina izango luke.

Bere garaian, Udalak beste bi bide-trazadura alternatibo aurkeztu zizkion Diputazioari, eskumako mendi-hegalak ez ukitzearen, baina hark ez zituen onartu. Orain, Udalak ez du horrelako proposamenik egin. Eskatu duen bakarra izan da eskumako mendi-hegalak ez ukitzeko.

## ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Eguazteneko ezohiko batzarrean, bestalde, atzo Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazio arteko Eguna zela eta, adierazpen instituzionala onartu zuten, aho batez. Idatzi horretan, besteak beste, Udalak kompromisoa hartzen du berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktiboa egiteko.

## BOLUNTARIOEN BATZARRA

Mizpirualdeko egoiliarrak bisitatza joaten diren voluntarioek batzarra egingo dute bihar, martitzena, 18:00etan, erretiratuen lokalean. Boluntario gisa hasi nahi duenak erretiratuen elkarteko batzordeko kideengana jo behar du izena ematera, edo biharko batzarrera joan.

## MARKEL OLANO ETORRIKO DA

Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia Antzuolara etorriko da egunean, azaroak 29. Udaleko ordezkariek batzarra egingo du, eta herriko projektuen berri emango diote. Hainbat eskakizun egiteko ere aprobetxatuko dute Udaleko agintarieki.

ARAMAIO

# Errotaberri, Arriola eta Zalgorako proiektuak

Foru Planerako hiru auzo horietako lanen proiektuak onartuko dituzte eguztenean

**ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO**  
Foru Planean aurkezteko, Zalgo, Errotaberri eta Arriola auzoetarako azpiegiturak hobetzeko lanen proiektuak onartuko dituzte etzi, eguztena, egingo den osoko bilkuran. Aurreko Udalbatzak lan horietarako aurreproiektuak aurkeztu zituen joan den urtean, eta orain, behin betikoak aurkeztuko dituzte, aurreproiektuen eguneraketa, alegia. Diputazioak proiektuok onartuz gero, asmoa da lanak 2008an hastea.

**BATZORDEETAN, ALDAKETAK**  
Udal batzordeen birmoldaketa ere izango dituzte hizpide azaroari dagokion osoko bilkuran. Izan ere, Eusko Alkartasuneko zinegotzi Andres Osinagak batzorde guztietan egotea esku zuen, eta EAJk ere zinegotzi berria izango du laster. EAEk, bestetik, bere parte-hartza ziurtatu nahi du batzorde guztietan. Horrenbestez, batzordeen berrantolaketa onartuko dute osoko bilkuran.

LEINTZ GATZAGA

# Batzordea aldatuko du Gurelek abenduan

**MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA**  
Gurel guraso elkarrekin batzorde aldaketa egingo du abenduaren 3an, astehena. Toki Eder elkartean izango da batzarra, 18:30ean, eta elkarteko bazkide guztiei egingo diente deialdia.

Lau lagunek osatzen dute Gureleko zuzendaritza batzordea, eta horietako bik utziko dute: Gurutz Orbegozo presidenteak eta Ana Milan diruzainak. Batzordean jarraituko dute Eguzkiñe Alberdik eta Ainara Zubillagak, eta beste bi guraso hautatuko dituzte. Gero, karguak banatu beharko dituzte lauren artean.


Bigarren gai bat ere landuko dute batzarrean: Gabonak. Jai egun horietan zein ekitaldi antolatu erabakiko dute.

# Kirola



## > FUTBOLA

Aloñak eta UDAk irabazi egin zuten etxeen, eta Mondrak, galdu > **16**



## > ESKUBALOIA

Ford Mugarrak irabazi eta Bergarak galdu egin zuen > **20**



## > SASKIBALOIA

Valsay Ardoiren aurka galdu zuten Arrasateko mutilek > **21**



## > PILOTA

Ibai Bolinaga arrasatearrarekin egon gara berba egiten > **22**



MARATOIA Lasterketa burua, Donostia kale batean, lasterka.

ARGAZKI PRESS

MARATOIA > DONOSTIA

## Debagoieneko lasterkariak, maratoia errepikatzeko gogoz

### MAROKOARRAK

Mutiletan, lehia estua egon zen marokoarren artean; azkarrena El Mouaziz izan zen

### PAGALDAI

Bergararrak 30. aldiz jokatu zuen atzo Donostiako maratoia; beteranoena da

### ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Maratoia aurreko postuetan amaitzeko asmoz irten zen atzo Ritzar Fernandez oñatiarra; baina, zoritzarrez, gura baino lehenago utzi behar izan zuen lasterketa. "28. kilometroan, bikiak igo zaizkit, eta bertan behera utzi behar izan dut lasterketa, Grosen", adierazi zigun behin Anoetara iritsi eta dutxa hartu ondoren.

Anoetako helmugan, Abdellahadi El Mouaziz (2:12:42) izan zen azkarrena; neskutan, Kristijna Loonen igo zen podiumeko leku gorenera.

### OÑATIARRAK, SENTSASIO ONA

Korrika egindako 28 kilometrotan, baina, sentsazio oso onak izan zituen Fernandezek. "Hasierako kilometroak uste bezala egin ditut; talde polita sortu dugu, eta marokoaren atzetik joan gara. Hala,

nirekin korrika egin duten lagunak uste nuen denboran sartu dira helmugara, 2:25:00 denbora inguruan, alegia", gaineratu zigun Fernandezek atzo.

Grosetik Anoetara oinez joan behar izan zuen oñatiarrak, eta, aitorri zigunez, nahiko arazo izan zituen Anoetako eskailerak igo-

tzen. Gainera, atzokoan hotz handia egin zuela gaineratu zigun: "Lasterketa hasi denean, sei gradu egiten zuen, eta, gerora, laura jaitsi da".

### PAGALDAI, 30. ALDIZ

Debagoienak beste protagonista bat ere izan zuen atzokoan: Bixen-

te Pagaldai bergararrak 30. aldiz egin zuen lasterketa. Pagaldai orain arte jokatu diren Donostia-koko maratoi guztietan egon den atleta bakarra da.

Bergararra beteranoena izan bazen atzo, maratoia lehenengo aldiz egin zutenak ere bazeuden: Asier Osinaga eta Jesus Odriozola oñatiarrak, esaterako.

Osinaga gustura geratu zen egindako lanarekin; uste bezala, 2:52:00 inguru behar izan zuen, eta erosoa helmugaratu zela aitorri zigun. Gainera, "familia guztia helmugan ikustean, hunkitu egin naiz", esan zigun.

Odriozolarentzat ere, atzokoa lehenengo aldia izan zen. Hiru ordu baino gehiago behar izan zuen maratoia bukatzeko, eta datorren urtean errepikatzeko gogoarekin gelditu dela onartu digu oñatiarrak.

### ESANAK

**"Lasterketa utzi behar izan dudan arren, sentsazio onarekin geratu naiz; orain, ondo osatzea da helburua"**

Ritzar Fernandez > Lasterkaria

**"Maratoia egiten dudan lehenengo aldia izan da; ikustera eta ikastera etorri naiz, eta gustura nago egindakoarekin"**

Asier Osinaga > Lasterkaria

PREFERENTE MAILA &gt; HAMABIGARREN JARDUNALDIA

# Hirugarren garaipena jarraian, Aloñarendako

ALOÑA

**4-0**

ANAITASUNA

**Aloña** > Iñigo, Julen, Iker, Xabi, Jon, Roberto, Aratz, Mikel (85. min., Iñigo), Unai (72. min., Unai), Axier (77. min., Mikel), eta Aritz (76. min., Jon).

**Anaitasuna** > Astigarraga, Azkotai, Martinez (64. min., Muñoz), Rotxa, Uria (60. min., Korta), Artetxe, Goenaga (56. min., Lizarruz), Tomas, Aranbarri, Iñigo (60. min., Etxeberria) eta Iban (60. min., Mendi).

**Epailea** > Sansuan jauna.



LEHEN GOLA Argazkian, Idigorasen lehen gola.

JOSETXO ARANZABAL

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Azkeneko bi jardunaldietan Zestoa eta Idiazabal menderatu ondoren, Aloñak hirugarren garaipena jarraian erdietsi zuen atzo Anaitasunaren aurka. Hala, atzo hiru puntuekin, bederatzi lortu ditu Josu Zubieren taldeak azken hiru partiduetan. Hortaz, Aloñak beste pauso bat eman du sailkapenean, eta orain, seigarrena da, 19 punturekin.

**GOL AZKARRA**

Eguraldi zakarrarekin jokatu zen atzoko partidua Azkoagainen. Kanpoan egiten zuen giroari aurre eginez, partidu ona jokatu zuten oñatiarrek. Zaleak zelaira sartzen zeudenean, bosgarren minutuan, aurreratu zen Aloña markagailuan: Roberto Idigorasen Iker Maiztegik emandako

pasea aprobetxatu zuen lehen gola egiteko. Golaren ondotik, Azkoitiako taldeak aurrera egin zuen, eta lehia berdintzeko aukerak izan zituen. Edozelan ere, etxeko jokalariak larrien zeuden unean, korner erdiraketa batean egindako errematearekin, bigarrena egin zuen Aratz Losadak. Bi goleko tartearekin, Anaitasunak aukera garbiak sortu zituen, baina Iñigo Idigoras atezaik geldiketa onak egin zituen.

**BI GOL GEHIAGO**

Bigarren zatiaren hasieran, Anaitasunak aurrera egin zuen, marragailua murritzeko asmoz. Bada, oñatiarrek egin zuten hirugarrena: Idigorasen egin zuen gola 55. minutuan. Halaber, Idigorasen berak izan zuen beste gol bat egiteko bidea, baina errema-teak, zutoinean jo zuen. Amaitze-ko bederatzi minutu falta zirenean, Elgarrestak egin zuen laugarena, penalti bidez.

PREFERENTE MAILA

# Mondra nahi eta ezinean ibili zen Berion

BERIO

**1-0**

MONDRA

A.G. &gt; BERGARA

Mondrak, min hartutako batzuk zirela eta, ezin izan zituen jokalari guztiak era man Berioren aurkako partidura, eta 1 eta 0 galdu zuen.

Partidua ondo hasi zen Gordobilen multilertzat, eta, hasierako minutuetan, auke ra argia izan zuen Lopezek arrasatearentzat. Etxeko taldeak, lehen zati honetan, ezer gutxi egin zuen Mondraren areara hurbiltzeko.

**LASPIUR, KANPORATUA**

Partidua, joko aldetik, behintzat, nahiko berdinduta ziohan, baina, 40. minutuan, ume keria batengatik, Laspiur kaleratu zuen epaileak, eta hamar jokalarirekin gelditu zen Gordobilen taldea.

Bigarren zatian, eta bat gutxiagorekin, kontraerasoen zain gelditu zen Mondra, baina, bosgarren minutuan, etxekoek gola sartu zuten. Arrasateurrek aurrera jo zuten, baina, berdinketaren gola lortzearen presaz, tokia galdu zuten zelaian. Beriok penalti bat huts egin zuen. Aukerak izan arren, ez zuten punturik lortu Arrasatekoek.

## emaitzak eta sailkapenak

**PREFERENTE MAILA****Sailkapena**

	Puntuak	JP
1. Real Union	26	12
2. Ordizia	23	12
3. Trintxerpe	22	12
4. Berio	21	12
5. Aurrera	21	12
6. Aloña Mendi	19	12
7. UDA	19	12
8. Euskalduna	18	12
9. Hernani	16	12
10. Mondra	15	12
11. Zestoa	15	12
12. Anaitasuna	14	12
13. VAsconia	14	12
14. Zumaiako	13	12
15. Hondarribia	13	12
16. Idiazabal	11	12
17. Eibararrak	9	12
18. Touring	6	12

**Emaitzak**

Zestoa-Idiazabal	1-2
Aloña Mendi-Anaitasuna	4-0
Vasconia-Eibartarrak	5-1
Real Union-Hernani	2-0
Hondarribia-Trintxerpe	3-3
Berio-Mondra	1-0
Ordizia-Touring	3-0
Euskalduna-Aurrera	1-0
UDA-Zumaiako	2-0

**Hurrengoak**

Zumaiako-Idiazabal	
Anaitasuna-Zestoa	
Eibartarrak-Eibartarrak	
Hernani-Vasconia	
Trintxerpe-Real Union	
Mondra-Hondarribia	
Touring-Berio	
Aurrera-Ordizia	
UDA-Euskalduna	

**BESTELAKOAK**

LEHENENGOKO ERREGIONALA	
Urola-Bergara	2-3
Antzuola-Oiartzun	0-2

**BIGAREN ERREGIONALA**

UDA B-Urkি	3-1
Elgeta-Ikasberri	1-2
Zestoa-Mondra	1-4
Eibartarrak-BTLS	3-0

**EMAKUMEZKOAK, IGOERA FASEA**

BTLS-Ostadar	1-0
--------------	-----

**EMAKUMEZKOAK, KOPA**

Mondra-Mutrikua	1-2
Arizmendi-Arizmendi B	6-1

Bergara	atsedena
---------	----------

**OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA**

UDA-Mariño	0-0
Bergara-Vasconia	2-0

**OHOREZKO GAZTEAK, KOPA**

Orioko-Aloña Mendi	0-1
Mondra-Beti Gazte	1-3

**LEHENENGOKO MAILAKO GAZTEAK**

Ikasberri-UDA B Arizmendi	1-4
Bergara B	atsedena

**OHOREZKO KADETEAK, IGOERA**

Aloña Mendi-Real Sociedad	1-1
---------------------------	-----

**LEHENENGOKO MAILAKO KADETEAK**

UDA B-Arizmendi	12-2
Arrasate-Eibartarrak	0-1
Bergara B	atsedena

**KADETE NESKAK F11, TXAPEDUNAK**

Arizmendi-Eibartarrak	2-0
-----------------------	-----

**KADETE NESKAK F11, KOPA**

Touring-Aloña Mendi	3-1
---------------------	-----

**KADETE NESKAK F8**

Bergara	atsedena
---------	----------

PREFERENTE MAILA &gt; UDA-ZUMAIAKO

# Beharrezko garaipena, atzo UDAk etxearen lortutakoa

Bigarren zatiko lehenengo minutuetan, UDAko Iker Orueta egotzi zuen epaileak; bigarren zatiko 30. minitu aldera, Zumaiako jokalari bat ere

UDA

**2-0**

ZUMAIAKO

Lehenengo aukera garbia Iban Lopezek izan zuen, baina gola Iker Orueta egin zuen. Atzealdetik hasitako kontraeraso bizkorrean, Orueta aeztaina gainditu zuen. Bigarren gola atsedena baino zerbaiz lehenago etorri zen, eta Igor Arriagak egin zuen.

**EPAILEA, TXARTO**

Bigarren zatian, gauzak nahastu egin ziren, batez ere, epailearentzat; izan ere, Iker Orueta egotzi zuen lehenengo minutuetan, eta, gero, penaltia adierazi zuen etxeoen kontra; zorionez, Elgarrestak gelditu egin zuen baloia.



Abendua

**1-15**

ERAKUSKETA "TACI  
ARRASATETIK ARRASATERA"

Kulturaten

**21**

Ostirala

**PELOTA PARTIDUAK**

Santamas komisiñoarekin eta Udalarekin  
elkarlanean

Uarkapen, 22:00

Saralegi - Mendizabal II  
Arretxe I - Iza

Olaizola I - Otxandorena  
Bengoetxea VI - Beguino

Urtarrila

**2.3.4.5**

GABONETAKO UMEEN  
JOLAS PARKEA

Txatxilipuri elkartearrekin elkarlanean  
Kiroldegian

**12**

Larunbata

**MIKEL URDANGARIN**

Udaleko Kultura eta Gazte Bulegoarekin  
elkarlanean

Amaia Udal antzokian, 20:00

Otsaila

**23**

Larunbata

**MIARRITZEKO BALLETA**

Udaleko Kultura sailarekin elkarlanean

Amaia antzokian, 19:30

"Mozart Ballets" obra

# Guztiok ereindako hazia

**Fagor Arrasate** da emaitza.

Guztioin artean ereindako haziaren fruitu emankorrena.

Herritik sortua eta Mondragoien errotua.

50 urte bete ditugu eta urteurrenaren ospakizunetan  
murgildurik, herriko hainbat talderekin eta Arrasateko  
Udalarekin elkarlanean ondorengo ekitaldiak antolatu  
ditugu.

Guztioin lanaren eta ulermenaren ondorioa garelako eta  
guztiokin ospatu nahi dugulako.  
Eskerrik asko.



ERRUGBIA &gt; ARRASATE-SANTANDER

## Santander liderraren aurka galdu egin zuten Arrasateko errugbi taldeko seniorrek

Partidua galdu arren, Arrasateko taldeak joko eta jarrera onak erakutsi zituen, zapatuan, Mojategiko norgehiagokan

MIREIA BIKUÑA &gt; ARRASATE

Aurreko aste bukaeran atsedena izan ondoren, senior mailako errugbi taldeak beste jardunaldi bat jokatu zuen zapatuan Mojategin, haien taldeko lider Santander taldearen aurka.

"Bagenekien partidua irabaztea zaila izango zela, Santanderrek azpiko joko zikina egiten duelako", azaldu zigun etxekoentrenatzaile Arkaitz Ibarguenek; "edozelan ere, gu partidu guztietara irabazteko asmoz irteten gara, eta zapatuan ere bai".

**PARTIDUA ETA HELBURUA**

Partidu zaila aurreikusten bazen ere, arrasatearrek dakiten jokoa egin zuten. Atsedenean, Santander taldea 5-17 zen nagusi Mojategin. Bigarren zatian errentari eutsi zioten, eta 19 puntuko tardearekin irabazi zuten (12-31).



ALBOKO SAKEA Argazkian, zapatuko partiduko une bat.

JOSETXO ARANZABAL

Zapatuko porrotarekin, Arrasateko errugbi taldeak hiru partidu galdu eta bakarra irabazi du. Edozelan ere, haien helburua igoera faserako sailkapena lor-

tzea dela esan zigun entrenatzaleak: "Lehenengo hirurak sailkatzen dira. Bada, bigarren itzulian, emaitza hobeak lortu beharko ditugu helburua lortzeko".



JOSETXO ARANZABAL

### Eskoriatza, lehia irabazteko aukera barik

Euskadiko Txapelketan lehiatzen den Eskoriatzako areto-futbol taldeak beste partidu bat galdu zuen sailkapeneko hirugarren tokian dagoen Kukullagaren aurka (0-4). Antonio Regañok zuzentzen duen taldeak partidua irabazteko aukera gutxi izan zituen. Bizkaitarrek bi gol lehenengo zatian egin zituzten, eta beste biak, bigarrenean.

&gt; TXIRRINDULARITZA

### Arrasateko Fagor Txirrindulari taldeko zuzendari izandako Pedro Matxain bihotzkoak jota hil da

Pedro Matxain (Erreenteria, 1927), Fagor taldeko zuzendaria izandakoa, zapatuan hil zen. Haren aginduetara, Txomin Perurenak, Jose Manuel Lasak, Mariano Diazek eta Luis Ocañaak korriitu zuten, besteak beste. Arrasateko txirrindulari taldeko zuzendari izan zen artean, lehia bizia izan zuen Kas taldeko zuzenari Dalmacio Langarikarekin. Zuzendari izan aurretik, txirrindularia ere izan zen, 1947tik 1954ra. Ziklo-krosean ere ibili zen. Hala, laugarren izan zen Espainiako Txapelketan, 1951. urtean.

# UDA GOIENEKO OSTERA

Murugarren

Txuma eta Gari

DURANGO PLATERUENA

AZAROA 30, BARIKUA, 22:00etan. SARRERA: 8 €, AURRETIK: 10 €, BERTAN.

Topagunea  
Euskar Elkarteen Federazioa

BFA  
DFB  
Kultura Salle  
Departamento de Cultura

100bbk

PLATERUENA  
Durangoko Kafe Antzokia

BERGARA

# Eskubaloia izan zen joan zen aste bukaerako protagonista

**SEIGARRENA** Bergarako alebin mailako neska-mutikoek 6. jardunaldia jokatu zuten zapatuan Labegaraietan

**ESKUBALOIA** Jardunaldi horretan, beste behin ere, eskubaloian jokatu zuten, eta arauak hobeto erabiltzen ikasi zuten

**KIROLTASUNA** Kiroltasuna oso garrantzitsua da kirol guzietan, eta zapatuan, hori ere erakutsi zuten umeek

JASONE ZABALA > BERGARA

Bergaran jokatu zuten eskola kirolari dagokion 6. jardunaldia. Labegaraietako kirolegian, Bergara, Antzuola eta Elgetako alebin mailako neska-mutikoak bildu ziren eskubaloian jokatzeko.

Goizeko hamarretan hasi ziren partiduak. Guztira, sei partidu izan ziren goiz guztian zehar. Lehenak jokatzen hegoaldeko ligakoa lau taldeak izan ziren: Mariaren Lagundia B-Antzuola A eta San Martin A-Aranzadi C izan ziren aurrez aurre.

Ordubete geroago, goizeko hamaiketan, sortaldeko ligakoen txanda izan zen: Aranzadi A eta Aranzadi B eta Mariaren Lagundia A eta San Martin B ibili ziren aurrez aurre.

**NESKEN TXANDA**

Hamabietan, nesken taldeen txanda izan zen, ekiadoko liga-kona, alegia. Bi partidu izan ziren guztira: Antzuola B eta Mariaren Lagundia, eta Antzuola A eta Aranzadi D.

Umeak pozik zeuden eskubaloian jokatzen, normalean ez baitute kirol hori egiteko ohiturarik. Astean zehar egiten dituzte entrenamenduak astebururako prestatzeko, eta guraso, entrenatzaile eta eskubaloitzaileek laguntzarekin, pozik ibiltzen dira. Futbola eta saskibaloia izaaten dira neska-mutikoen gustuko kirolak, eta batzuei kosta egiten zaie beste kirol batzuetako arauak ikasi eta errespetatzea. Baino, hori bai, kiroltasun osoz ibiltzen dira partidu bakotzean.



**Antzuola A.** Ainara, Mariñe, Amaia, Hira, Maria, Itziar, Nerea, Leire eta Ibane.



**Antzuola B.** Lidia, Olatz, Leire, Ane, Alazne, Uxue, Goizaldi, Aiora eta Baleegha.



**Mariaren Lagundia.** Nerea, Izar, Ane, Idoia, Marina, Nere, Ainhoa, Amaia, Lorea, Alazne eta Maria.



**Aranzadi D.** Ana, Garazi, Amaia, Goizane, Uxue, Maider eta Nerea.


ERRESPECTATZEN DITUZUE ARAUAK?



Maria eta Nerea  
Mariaren Lagundia



Ainhoa eta Amaia  
Mariaren Lagundia



Jokin eta Aitor  
Mariaren Lagundia



Christian, Paul eta Borja  
Mariaren Lagundia



Maria, Mariñe eta Itziar  
Antzuola A

"Arauak errespetatzen ditugu. Batzuetan, arauen bat salto egiten dugu, baina ez nahita. Esti eta Maggi dira astean zehar eskola-kirolean eskubaloian egin behar dena irakasten digutenak".

"Arauak errespetatzen ditugu, baina ez zaizkigu justuak iruditzen, bote bat eta hiru pauso eman daitezkeelako bakarrik. Gainera, partidu guztiak irabazi ditugun arron, epaileak oso txarrak dira".

"Arauak ederk ikeri ikasi ditugu, eta errespetatzen ditugu. Estik eta Maggi irakasten dizkigute arauok. Ikasteko eta errespetatzeko ez dira batere zailak. Epaileak, gainera, nahiko txarrak dira".

"Eskola-kirolean ikasten ditugu arauak, eta ez zaizkigu batere zailak egiten, nahiz eta batzuk errazak eta beste batzuk zailak izan. Gainera, bote bakarra eman daiteke, eta arau hori ez zaigu gustatzen. Epaileak oso txarrak dira; gaur, baloi batek zutoina jo du eta epaileak gol eman du".

"Lehen geneuzkan arauak baino zailagoak dira oraingoak. Bote bakarra eman daiteke, eta, batzuetan, nahastu egiten gara eta bi ematen ditugu. Astean zehar entrenatzen dugu, ahalik eta akatsik gutxien egiteko, eta, poliki-poliki, bagoaz gure jokoa hobetzen".



BORROKA Argazkian, Peio Olaberria, Portugaleteko defentsarekin borrokan.

JOSETXO ARANZABAL

EUSKADIKO TXAPELKETA &gt; SENIOR MAILAKO MUTILAK

## Bi puntu gehiago Ford Mugarrirrendako

FORD MUGARRI

**26-24**

PORTUGALETE

Ford Mugari > Trufo, Asier, Xabi (5), Jonan (3), Peio (1), Arkaitz (3), Jorge (2), Iker, Nestor (6), Jokin (3), Joseba (1) eta Aitor (2).

Portugalete > Peral (1), Romo, Lopez (3), Ramala (9), Kanikazelaia, Gomez (1), Esteban (8), Nuñez (1), Natividad, Franco, Cabana eta Roman (1).

Markagailua bost minuturo > 2-2, 4-2, 7-4, 10-6, 11-7, 14-11. Atsedena. 16-13, 18-15, 19-15, 20-18, 23-22, 26-24.

MIREIA BIKUÑA &gt; ARRASATE

Euskadiko Txapelketako beste jardunaldi bat jokatu zuen zapatauan, Musakolako kirolegian, Ford Mugarri, eta beste garaien bat eskuratu zuen; oraingoan, Portugaleteren aurka. Hori bai, bigarren zatian asko sufritu zuten etxekoek.

Partiduko lehenengo minutuak oso parekatuak izan ziren. Etxekoek zortzigarren minutura arte ez zuten zabaldutartea markagailuan (4-2). Edozelan ere, Ford Mugarri, gehienez ere, bost goleko errenta izan zuen, lehenengo zatiaren 19. minutuan (10-5).

URRATSAK

Bigarren zatiaren hasieran, etxekoek errentari eutsi zuten. Edozelan ere, bost minututan egindako 0-3ko partzialari esker, bizkaitarrek errenta gol batean utzi zuten (20-19). Handik aurrera, norgehiagoka asko nahastu zen. Portugaleteko entrenatzaleak bakarkako bi defentsa agindu zituen; hortaz, etxekoek kostatzen zitzaien erasoko jokaldiak antolatzea. Markagailuak 25-24 erakusten zuenean, Portugaleteko jokalari batek urratsak egin zituen erasoan. Hala, azken gola etxekoendako izan zen.

EUSKADIKO TXAPELKETA &gt; SENIOR MAILAKO NESKAK

## Seigarren jardunaldian, lehen garaipena Aloñak

ALOÑA MENDI

**32-27**

IES CONSTRUCCIONES

J.Z. &gt; OÑATI

Seigarren jardunaldira arte itxaron behar izan zuten Aloñako neskak lehen garaipena lortzeko. Gasteizko Construcciones taldeari 32 eta 27 irabazi zioten.

Hasierako minutuetatik, jaun eta jabe izan ziren Maitane Ruizek zuzentzen dituen neskak.

Defentsan arazo batzuk izan arren, erasoko jokoan jaurtitako guztia barrura sartu zuten. Zazpi goleko aldea ere izan zuten. Baloia oso ondo mugitu zuten, urduritasun barik. Lehen zatia bost goleko errentarekin amaitu zuten etxekoek (19-14).

BIGARREN ZATIA BERDIN

Bigarren zatian, gauzak ez ziren batere aldatu, eta kanpoko taldea saiatu zen arren, ezin izan zuten ezer egin markagailuko aldea murrizteko. Etxekoek golegile nagusia Arabaolaza izan zen, sei gol sartuta.



LARRAÑAGA Aloñako Jone Larrañaga, jokaldi baten.

JOSETXO ARANZABAL

EUSKADIKO TXAPELKETA &gt; SENIOR MAILAKO MUTILAK

## Bergarak ezin izan zuen Barakaldo liderra gainditu

BERGARA

**30-37**

BARAKALDO

defentsako lana gutxitzen hasi zen, eta bizkaitarrek euren errenta zazpi goletara handigotu zuten. Epaileak jokalari asko kanporatu zituen, eta jokoak zoratu egin zen.

Nabaritu zen bizkaitarren kalitatea eta esperientzia. Hala eta guztiz ere, etxekoek ez zuten erritmoa moteldu, eta kanpotarren errentak irauna egin zuen.

Lehen zatian, Muniategirenak lasai hasi ziren jokatzen, baloia ondo mugituz. Golak erraz egin zituzten bi taldeek.

Barakaldok erritmoa area-gotu zuten, bere gizonen kalitatea aprobetxatuz markagailuan errenta egoki bat lortzeko, eta halaxe izan zen. Poliki-poliki, 4-5 goleko errenta lortu zuten bizkaitarrek, eta partiduaren jabe izaten hasi ziren. Lehen zatiko emaitza 14 eta 21 izan zen.

BERGARARRAK, AZKARREGI

Etxekoak, aurkariak lortutako errenta ikusita, partidua apurtzera joan ziren. Etxekoek



ONDO Liderraren aurka partidu ona egin zuten.

JOSETXO ARANZABAL

## e maitzak

### MAILAZ MAILA

#### EUSKADIKO TXAPELKETA

Bergara-Barakaldo	30-37
Ford Mugari-Portugalete	26-24

#### NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Verkol Aloña-Construcciones	32-27
-----------------------------	-------

#### LEHENENGOK TERRITORIALA

Eibarko-Arrasate eskubaloi	26-18
----------------------------	-------

#### BIGARREN TERRITORIALA

BKL Iñautsi-Bergara	26-33
Aloña Mendi-Donibane	27-24

#### GAZTE MUTILAK

Arrasate-Hondarribia	10-28
Rotula-Aloña Mendi	18-27

#### GAZTE NESKAK

Aloña Mendi-Arrate	24-14
--------------------	-------

#### KADETE MUTILAK

Berezao Aloña-Bergara	22-16
-----------------------	-------

#### KADETE NESKAK

Verkol Aloña-Jauja	19-16
--------------------	-------



ITURRIPE Arrasatearrak, Iturripen jokatutako partidu batean.

ARTXIBOA

LEHENENGKO MAILA > OINTXE ARRASATE

## Zortzigarrenean galdu du Arrasateko taldeak

VALSAY ARDOI  
**76-70**  
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA  
Zapatura arte, ligan jokatutako partidu guztiak irabaziak zituen Arrasateko senior mailako saskibaloi taldeak: zazpi jokatu eta zazpi irabazi. Guztira, 14 puntu zituen Iñaki Merinok zuentzen duden taldeak.

Bada, zapatuan, Nafarroako Valsay Ardoi taldearen aurka, galdu egin zuen Mondragon Unibertsitateak (76-70).

### PARTIDU ZAILA

Aurreko astean Iñaki Merinok aurreikusi bezala, partidu zaila izan zen zapatuan Zizurren jokatutakoa. Arrasateko mutilek bazeikiten Valsay Ardoi goian ibiltzeko taldea dela; hala, lehenengo posturako lehian, Mondragon Unibertsitatearekin batera ibiliko den taldea izango da Valsay Ardoi nafarra.

Bi talde horiekin batera, Donostia Cafes Aitona ibiliko da goian. Sailkapenean, orain, Arrasateko taldea dago lehenengo, 15 puntuarekin; gero, Cafes Baque, Valsay Ardoi eta Tabirako daude, hirurak 14 puntuarekin.

### DATORREN ASTEAN, BASKONIA

Zapatuan jokatuko dute arrasatearrek Fundacion Baskoniaren aurka, Iturripen 18:00etan. Fundacion Baskonia 5. postuan dago sailkapenean. Orain arte, hiru partidu besterik ez dituzte irabazi, eta bost galdu dituzte.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA > GAZTE MAILA

## Hamalau puntuko desabantailari buelta eman zioten

MONDRAGON UNIBERTSITATEA  
**88-75**  
EASO

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE  
Gipuzkoako gazte mailako txapelketako partidua jokatu zuten zapatua goizean Mondragon Unibertsitateak eta Easok. Kostata, baina arrasatearrek irabazi egin zuten partidua.

Oso gaizki hasi zen norgehiagoka etxeko jokalariendako. Zonakako defentsa berri batekin hasi zuten lehia; bada, Easo tal-

deak defentsa hura aprobetxatu zuen markagailuan tartea zabaltzeko: 30-44, atsedenerako bi minutu falta zirenean.

### HUTSARTEA

Une hartan, etxeko entrenatzaleak hutsartea eskatu zuen alda-ketak egiteko, eta emaitza ona izan zen: bi minututan, 18-2ko partziala egin zuen MUk, eta atsedenera bi puntuko errentarekin iritsi ziren.

Hirugarren eta laugarren tar-teetan, asko hobetu zen etxeko-en jokoak, eta errenta handitzen joan ziren. Halaber, beste behin, MUko jokalari guztiak jokatu zuten partidua.



ERASOAN MUko jokalari Ander Atxa, jaurtiketa egiteko gertu.

JOSETXO ARANZABAL

GIPUZKOAKO TXAPELKETA > LEHENENGKO MAILA

## Bergarako Candyk 69-56 galdu zuen, liderrarekin

Bederatzi lehia jokatu eta bakarra irabazi du Bergarak; azkenak dira sailkapenean

A.E. > BERGARA

Liderraren aurka galdu zuen zapatuan Bergarako Candyk. Mahoneroek ondo jokatu zuten, baina, donostiarren aurka, ezer gutxi egin ahal izan zuten.

Hasieratik jarri zen aurreikusi La Salle taldea. Lehenengo minutuetan, samur menderatu zituzten bergararrak; hala, atse-

denera, 15 tanto aurretik iritsi ziren donostiarra.

### DEFENTSA ALDAKETA

Laugarren laurdenean, Bergarak defentsa aldatu zuen eta, horrela, markagailuko aldea murriztea lortu zuen. Partidua amaitzean hiru minutu falta zirela, hiru tantoko tarteak besterik ez zion ateratzen La Salle Bergarari. Gero, baina, donostiarren esperientzia baliatu ziren eta 69-53 irabazi zuten.

Bergarak garaipen bakarra lortu du ligan, eta azkena da sailkapenean. Datorren astean, Ordiziaren bisita jasoko dute.

GIPUZKOAKO LIGA > SENIOR NESKAK

## Garaipen erosoa lortu zuten Eskoriatzako neskek

Arazo barik irabazi zuten eskoriatzarrek Ordiziaren aurkako partidua (30-55)

M.B. > ESKORIATZA

Gipuzkoako Txapelketako seigarren jardunaldia jokatu zuten Eskoriatzako neskek, zapatuan, Ordiziaren aurka, eta garaipen erosoa lortu zuten senior mailako neskek. Hala, zapatuan lortutako puntuekin, Eskoriatzako taldeak goian jarraitzen du sailkapenean, lau garaipen eta porrot batekin.

### PARTIDUA

Norgehiagoka erosoa izan zen Eskoriatzak Ordiziako kirodegiaren jokatutakoa. Partiduaren lehenengo laurdena 3-20ko emaitzarekin bukatu zen. Hortaz, partidua ia erabakita utzi zuten eskoriatzarrek. Iker Zelaiaaren taldeak zortzi jokalarirekin bakarrik jokatu zuen herenegun, lesioak tarteko, baja asko zituen-eta.

Bigarren eta hirugarren tar-teetan, defentsako lana ez zen hain sendoa izan, baina errenta 15 puntukoa izan zen. Norgehiagoka erabakita zegoanean, azken tartean, eskoriatzarrek 30 puntuko tartea izan zuten.

## emaitzak

### MAILAZ MAILA

LEHENENGKO MAILA  
Valsay Ardoi-MU 76-60

SENIOR MUTILAK  
La Salle-Candy Bergara 69-56

SENIOR NESKAK  
Ordizia-Eskoriatza 30-55

GAZTE MUTILAK  
MU-Easo B 88-75  
Bergara-Oiartzun 113-30  
Oiarso-Aloña Mendi 28-61

GAZTE NESKAK  
Allerru-Eskoriatza 23-57

KADETE MUTILAK  
Take-MU C 87-29  
Aloña Mendi-Andraitz 44-59  
MU B-Oiartzun 91-15  
MU A-Krafft 99-32

KADETE NESKAK  
Eskoriatza-Aldapeta 69-57  
Antigu-Arizmendi Eskoriatza 19-22  
Añorga-Aloña Mendi 75-21

Kadete mailako pilotaria izan arren, gazte mailan jokatzen ari da Ibai Bolinaga arrasatearra.

Aurten, bi txapelketa garrantzitsutan, aurrean dabil; DV sarian, finalerdieta iritsi da, Jauna-

renarekin batera, eta Baque sarian, Jaunarenaren aurka jokatuko du finalerdia, etzi,

eguaztena. Lau t'erdiko finalaren gainean galdeztuta, Titinek irabazi gura duela esan digu.

## Ibai Bolinaga > Pilotaria

# "DV txapelketan, aurrera joan ahala, indarra eta konfiantza hartu dugu"

**ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE**  
Azterketa garaian harrapatu dugu Ibai Bolinaga; hala ere, gurekin berba egiteko tarte hartu du pilotari gazteak. Urte borobila egiten dabil Arrasatekoa; DV eta Baque Sariko txapelketetan finalerdieta iritsi da, oraingoz, Bolinaga.

**Etzi, Baque sariko finalerdiak jokatuko dituzu Iurretan. Nolako partidua izango dela uste duzu?**

Partidu oso zaila izango da; aurkaria gogor jokatzen dabil azkenaldian, eta zaila izango da aurrera egitea. Gogor egin beharko dut lan.

Badira hilabete batzuk txapelketa hasi zela, baina nik bi partidu besterik ez ditut jokatu. Zerrenda buruen arabera, batzuk beranduago sartu gara lehian. Hala, etzikoa nire hirugarren partidua izango da.

**Gainera, DV sarian zure bikotekidea den Jaunarena izango duzu aurkari.**

Bai, hala tokatu da. Partidua irabazi eta aurrera egin gura badut, gogor egin beharko dut lan. Oraindik ez dut berarekin egoteko aukerarik izan, baina partidua baino lehenago, izango dut horretarako tartea.

**Elkar ezagutzea onerako izango dela uste duzu?**

Orain arte jokatu izan dugu elkarren aurka, eta elkar ezagutzen dugu. Bainaz ez dakit onerako edo txarrerako izango den hori, izan ere, nik bera ezagutzen dut, baina, era berean, Jaunarenak ere ni ezagutzen nau. Partidu bakoitzaz ezberdina izaten da, eta ez dakit zer gertatuko den.

**Eguazteneko partidua irabaziz gero, finala jokatuko zenuke.**

Finala abenduaren 8an izango da, Iurretan. Bainaz zaila izango da finalera iristea.

**Bestalde, DV sariko finaleria jokatuko duzu Jaunarenarekin batera, abenduaren 6an.**

Bai, Urretxun jokatuko dugu, Urrutikoetxea eta Landaburu bizkaitarren aurka. Orain, beste partidu batzuk jokatzen gabiltzanez, ez dugu behar beste entrenatu; baina ahalik eta ondoen entrenatuta joango gara Urretxuko finalerdira.

Gu baino nagusiagoak dira Urrutikoetxea eta Landaburu; hori dela eta, orain arte, ez dugu elkarren aurka jokatzerik izan.

Maila ezberdinan ibili izan gara. Hortaz, lehia oso zaila izango da; guk baino indar handia goa du bikote bizkaitarrak, eta esperientzia ere, guk baino handioa dute.

**DV sarian, orain arteko ezusteko bikotea zarete.**


Hasierako partidutan, ondo jokatu eta ahalik eta lan onena egitera irten ginen. Gure nahia itxura ona ematea zen; eta, ahal den neurrian, aurrera egitea. Egia esan, lehenengo partidua irabaztea ere ez genuen espero. Bainaz, poliki-poliki, aurrera joan gara eta indarra hartu dugu. Azken finean, gugan konfiantza hartu dugu.

**Azken partiduan, Garralda eta Diezen aurka 22-13 irabazi zenuten. Nola gogoratzen duzu partidu hura?**

Gu itxura ona ematera irten ginen; galdu egingo genuela uste genuen, baina ahalik eta ondoen jokatu gura genuen. Gero, partidua aurrera joan ahala, irabazteko gai ginela ikusi genuen, eta gugan sinisten hasi ginen. Hala, azkenean, irabazi egin genuen. Gainera, Garralda iazko txapel-duna da.

**Zuen mailan, DV saria irabazteak zer esan gura du?**

Afizionatu mailan, izen handia du sariak. Horregatik, izugarria izango litzateke irabaztea. Gainera, adinez, guk ezin dugu txapelketarik jokatu. Beste guztiak baino gazteagoak gara, kade te mailakoak gara gu.



Ibai Bolinaga.

GOIENKARIA

**Nola definituko zenuke zure bikotekidearen jokoak?**

Jaunarena oso bizia da. Pilotaria indar handiarekin jotzen du, oso bizi. Bestalde, sakez ondo dabilen pilotaria da, eta, airez, ondo moldatzan da.

**Aurtengoa urte borobila izanda. Nola gogoratzen duzu ekainean Arrasatek irabazitako herri arteko txapelketa?**

Polita izan zen; ez genuen espero txapelketa irabaztea. Bainaz, aurrera joan ahala, ilusioa hartu genuen. Ondo pasatu genuen; gainera, finala Arrasateko jaietan izan zen, eta txapela ospatzeko aukera ederra izan genuen.

Aurten, txapela berriz ere errepikatzea zaila ikusten dut. Kategoriaz aldatu gara: iaz, Agirregabiriaren batera, kadete mailan jokatu nuen, eta aurten, Agirregabiria eta Zubizarreta-rekin, gazte mailan ibiliko naiz. Aurkariaik indartsuagoak izango dira; hortaz, txapelketa zaila izango da.

**Aurrera begira, nola ikusten duzu etorkizuna?**

Ez dakit, poliki-poliki joan beharko dugu. Profesional mai-la? Ez dut horretan pentsatzen!

**Lau t'erdiko txapelketako finalerako, baduzu faboritorik?**

Gurago dut Titinek irabaztea, baina uste dut Barriolak irabaziko duela. Titinen herri-joaten gara oporetara eta eza-gutu egiten dut.

## Mendizabal antzuolarrak binakako DV sariko finalerdia jokatzeko txartela lortu du

DV sariko finalerdieta izango den beste debagoiendar bat Aitor Mendizabal antzuolarrak izango da; izan ere, Mendizabal eta Jauregi bikoteak 22-11 irabazi zien Urtasun eta Uzkuduni, zapatuan, Elgetan. Antzuolarra gustura zegoen egindako lanarekin: "Ondo jokatu dugu, eta gustura gaude lortutakoarekin". Gainera, Jauregi bikotekideak egindako lana azpimarratu gura izan zuen Mendizabalek.


Ez zen, baina, samurra izan zapatuko lehia; lehenengo minutuetan, Urtasun eta Uzkudun aurretik joan ziren (3-0). Gero, Mendizabal eta Jauregik lehia berdintzea lortu zuten (4-4). Handik aurrera, samur menderatu zuten norgehiagoka. Amaieran, puntu erdietan utzi zuten Urtasun eta Uzkudun bikotea (22-11).

Modu honetan, DV sariko finalerdiak jokatuko ditu Mendizabalek, abenduaren 6an, Urretxuko pilotalekuaren; aurkariak Ongai eta Mariñelarena irurtzundarrak izango dira. "Kanporaketa oso zaila izango da; gainera, orain arte ez dut hauen aurka inoiz jokatu eta, hortaz, ez dut erreferentziarik", esan zuen Mendizabalek, aurkariez galdeztzean. Mendizabal eta Jauregik finala eskuratzeko aukera polita izango dute.



Mendizabal, Elgetako pilotalekuan, zapatuan.

JOSETXO ARANZABAL



> MUSIKA

EH Sukarrak adin askotako jendea erakarri zuen 3.60 aretora > **27**



> ZARZUELA

'El Duo De La Africana' estreinatu zuten Arrasaten > **27**

> RUPER ORDORIKA  
Oñatiarraren 'Memoriaren Mapan' diskoko abestiekin azken kontzertuak ikusteko aukera izango dugu datozen asteetan Euskal Herrian > **28**



PAILAZOAK > PIRRITX ETA PORROTX ESKORIATZAN

## Pirritxen, Porrotxen eta Mari Mototsen izenean, amen

Sekulako zalaparta eta ikusmina sortu ziren argiak kendu eta pailazoak agertzean

Pailazoan ikuskizun berrian, Mari Mototsek minbizia du, eta hari laguntzen saiatzen dira

**MAIER URANGA > ESKORIATZA**  
Eskoriatzako kirolegian izan ziten zita, zapatuau, Pirritx eta Porrotx pailazoan jarraitzaileek. 17:30ean, bakoitzak zegokion lekua hartuta, urduri zeuden euskal pailazo famatuuenak ikustera gerturatu ziren haur, gazte eta gurasoak. Sekulako zalaparta sortu zen argiak itzali eta pailazo koadrila taula gainera igo zenen. Mick Jagger berak ere ez luke horrenbeste zirrararak sortuko, seguruenera. Lehenengoz Pirritx eta Porrotxen ikuskizunaz gozatzen doan edonor harrituta geratuko litzateke jendearen-gan sortzen duten miresprena iksita; izugarria da nola sartzen diren ikuskizunean bertara gerutzen direnak, abestiak jarraituz eta sekula ez bezala dantzatz. Aipatzeko da guraso askok haurrek baino hobeto pasatu zutela; hala, batzuk ahots gabe ere joan ziren etxera.

Ordu eta erdiko ikuskizun paregabea eskaini zuten, abesti berriak eta aspaldikoak tartekatuz. Eta, nola ez, *Maite Zaitut* kanta arrakastatsua azkenerako utzi zuten, kirolegia guztiz zoratu zedin. Ikuskizuna amaitu zenean, pailazoek beti egin ohi duten legez, muxuak eta besarkadak banatzera jaitsi ziren jende arteara, eta umeak, pozez lehertzen, pailazoan eta Mari Mototsen besarkadak jasotakoan.

**'ESKERRIK ASKO'**  
Eskerrik Asko ikuskizun berriaren aurkezpena izan zen zapatuau Eskoriatzan egin zutena. Pailazoek badute lagun bat, Mari Motots, baina ez du mototsik,




BISITA Pirritx eta Porrotxek Mari Mototsi bisita egiten diote ospitalean.

JOSETXO ARANZABAL

minbizia duelako, eta ikuskizunean, lagunek eta pozik egoteak duen garrantzia aritu ziren. Abestiak eta dantzak uztartuz pozik jardun zuten pailazoek.

Aspanovas Euskadiko Haur Minbizidunen Guraso Elkartearen Gipuzkoako sailarekin elkarlanean, minbiiziaren aurkako borrokan, itxaropenez eta elkar-tasunean ekin behar dugula gogorarazi ziguten Pirritx eta Porrotx pailazo solidarioek.


Haur minbizidunaren eta bere familiaren bizi-maila hobetzea lortu gura du Aspanovas elkartearak, eta diagnostikoak eta gaixotasunaren garapenak sortzen dituen trabak gainditu ahal izatea, besteak beste. Garrantzitsua da minbizia duten haurrek beraien adinekoen ekintzetan parte hartzea, eta hori ahalbidetzen laguntzen dihardute pailazoek.



Pedro, John eta Aitziber  
Eskoriatza



Aratz Casado  
Arrasate



Markel, Nahia eta Aratz  
Aretxabaleta

"Pedroren emazteak erositzen sarrerak, nahiz eta haur txikiena zaintzen geratu behar izan zuen. Hala, hirurok etorri gara", esan ziguten. "Johni izugarri gustatzen zaizkio Pirritx eta Porrotx, baina abesten hasi diren arte, beldurtuta egon da; hori bai, pailazoak abesten hasi direnean, akabo beldur guztiak!"

Asko gustatzen zaizkio Aratz pailazoak, "baina arreba Ekhineri, askoz gehiago", dio. Izen ere, batzuetan, beldurtu ere egiten baitzen arrasatear txiki hori.

"Asko gustatu zaigu ikusi duguna. Aratz gehien Pirritx gustatzen zaien arren, besteak ere oso gogoko ditu", esan ziguten. Abesten dutenean pasatzen dute ondoen, eta abesti guztiak dituzte gustuko.



# Kantari Bergaran



## Eta berriz izango gara...kantari

**MAIER URANGA > BERGARA**

Atzo bukatu zen herriz herri ibili den *Kantari* karaoke ikuszkizuna, Bergarako Jam aretoan. Oraingo hontan ere, guraso eta lagun mordoa gerturatzen ziren, abeseten ibili ziren ume eta gaztetxoak animatzera. Amaia Txintxurreta oñatiarraren gidaritzapean, azken saioa primeran joan zen, eta umeak ere oso pozik jaisten ziren taula gainetik. Guztira, 90 ume egon ziren, 24 taldean banatuta.

Jam areto kanpoan, goxokiak eta antzekoak saltzen zituen furgonetatxoan ere bazegoen, gerturatzentz zirenen beharrak asetzeko asmoz-edo.

Umeak, oraingoan ere, oso pozik ibili ziren gora eta behera, euren txanda noiz helduko zain, eta gurasoak eta lagunak han egote hutsak dardarka jartzen zituen. Abesten hestean, gehienak lotsatuta hasten ziren arren, amaieran, profesionalen antzera agurtzen zituzten ezagunak agertokitik.

**'KANTARI', TELEBISTAN**

Herriz herri ibili den karaoke ikuszkizunaren saio bakoitza telebistaz emateko grabatu dute; beraz, parte hartu duzuen guztiok eta zuzenean ikusteko aukerarik izan ez duzuenok, oraindik gozatzeko tarterik ere izango duzue. Izan ere, GOITBn astero ikusi ahal izango duzue, martitzen eta eguenetan, 20:15ean hasita. Beraz, adi egon guztiok, eta gozatu, udazkenean ibarreko umeak kantuan eta dantzan jarri dituen ikuszkizunaz.



PARTE-HARTZAILEAK



Sara, Aroa, Xabi eta Garazi  
Kantari-ko partaideak



Ainhoa, Ane, Maider eta Saioa  
Kantari-ko partaideak



Beñat, Eneko, Markel eta Iker  
Kantari-ko partaideak



Unai, Ibon, Ander eta Gorka  
Kantari-ko partaideak

"Kortaturen Sarri, Sarri kantua abestu dugu. Hasieran oso urduri geunden, baina ondo irten da, eta kito. Gainera, lagun mordoa etorri da gu animatzera, eta guk bezala egin dute dantzan etorri direnek".

"12 urte ditugu, eta Bergarakoak gara. Gure herriko Emon taldearen Zergatik ez? abestia abestu dugu, asko gustatzen zaigu eta hurrengoan ere abestuko genuke berriz. Hori bai, hasieran, urduri egon gara".

"Ez gara oso urduri egon; bueno, hasieran, apur bat bai. Zaramaren Iñaki abestia kantatu dugu; hurrengo baten, akaso, besteren bat kantatuko genuke, baina asko gustatzen zaigu, eta asko entseatu dugu, gainera".

"Ilargia abestu dugu: izugarri gustatzen zaigu eta ez genuke inondik inora aldatuko. Iraileaz gerotzik ibili gara entseatzen", esan ziguten lau lagun horiek; gero, joan egin ziren agudo, "lagunek abestu behar dute eta".



## Kantari Debagoienean

# Saioen emanaldiak GOITBn



**NOIZ** > Azaroaren 27an.  
**ORDUA** > 20:15ean.  
**TALDEA** > Alazne Agirre, Amaia Beitia, Julene Urrutia eta Miren Ugarte.  
**HERRIA** > Oñati.  
**ADINA** > 10 eta 11 urte.  
**ABESTIA** > Goizero.



**NOIZ** > Azaroaren 29an.  
**ORDUA** > 20:15ean.  
**TALDEA** > Ainhoa Aznola, Alex Arribas, Leire Cabezas eta Leire Zubillaga.  
**HERRIA** > Aretxabaleta.  
**ADINA** > 10 eta 11 urte.  
**ABESTIA** > Galdurikan nago.



**NOIZ** > Azaroaren 27an.  
**ORDUA** > 20:15ean.  
**TALDEA** > Ainhoa Barrena, Ainhoa Perez, Carmen Espinosa eta Maider Usandizaga.  
**HERRIA** > Oñati.  
**ADINA** > 10 eta 11 urte.  
**ABESTIA** > Lau teilatu.



**NOIZ** > Azaroaren 29an.  
**ORDUA** > 20:15ean.  
**TALDEA** > Ainhoa Elkorbarrutia, Maialen Zugasti eta Maider Errasti.  
**HERRIA** > Aretxabaleta.  
**ADINA** > 7 eta 8 urte.  
**ABESTIA** > Maite zaitut.



**NOIZ** > Azaroaren 27an.  
**ORDUA** > 20:15ean.  
**TALDEA** > Desiree Astui, Guadalupe Teixido, Leire Zabala eta Nagore Elortza.  
**HERRIA** > Oñati.  
**ADINA** > 7 eta 8 urte.  
**ABESTIA** > Furra, furra.



**NOIZ** > Azaroaren 29an.  
**ORDUA** > 20:15ean.  
**TALDEA** > Anne Paul, Iratxe Gomez, Juncal Gonzalez eta Nagore Balantzategi.  
**HERRIA** > Aretxabaleta.  
**ADINA** > 7 eta 8 urte.  
**ABESTIA** > Katuen testamendue.



**NOIZ** > Azaroaren 27an.  
**ORDUA** > 20:15ean.  
**TALDEA** > Jone Biain, Miren Sanz de Galdeano, Nerea Elortza eta Uxune Zabaleta.  
**HERRIA** > Oñati.  
**ADINA** > 9 urte.  
**ABESTIA** > Arratsalde honetan.



**NOIZ** > Azaroaren 29an.  
**ORDUA** > 20:15ean.  
**TALDEA** > Garazi Ortiz de Mendibil, Itxaso Urrutia eta Unai Diez.  
**HERRIA** > Aretxabaleta.  
**ADINA** > 10 urte.  
**ABESTIA** > Kaiser Sose.



**NOIZ** > Azaroaren 27an.  
**ORDUA** > 20:15ean.  
**TALDEA** > Bibiñe Urtzelai eta Nagore Marrero.  
**HERRIA** > Oñati.  
**ADINA** > 9 urte.  
**ABESTIA** > Eskutitza.



**NOIZ** > Azaroaren 29an.  
**ORDUA** > 20:15ean.  
**TALDEA** > Leyre Fernandez de Antoña eta Nahia Gomez.  
**HERRIA** > Aretxabaleta.  
**ADINA** > 9 urte.  
**ABESTIA** > Arratsalde honetan.



PUNTEOA Norton, gitarrarekin, ezkerrean, eta Cesar, baxuarekin, eskuman.

IMANOL SORIANO

MUSIKA > KONTZERTUA

## Belaunaldi askotako jarraitzaileak batu ziren EH Sukarra entzuteko

'Norton'-ek behin eta berriz eman zituen eskerrak, Arrasate bihotzean daramala esanez

Laster kaleratuko duten zuzeneko diskoa grabatu dute aurtent, Durangoko Plateruean

**MAIER URANGA > ARRASATE**  
Nahiz eta inguruan musika zita ugari egon, 3.60 aretoan, EH Sukarra Eibarko talde mitikoaren jarraitzaile asko bildu ziren bariku gauean.

Gaueko hamaiketan zen hitzordua, eta puntual ekin zioten kontzertuari taldeko hiru kideek, izan ere, orain hiru baino ez dira. Adin guztietako ikusleak gerturatuz ziren Arrasateko arretora, 14 urteko Oñatiako neska koadrila batetik hasita, EH Sukarraren lehenengo kontzertuak ikusita zituztenetara. Talde bakarra ikusi genuen bertara gerturatuz ginenok, baina nahiko, denbora luzez jo baitzuten, jendea eskainitakoarekin pozik utziz. *Lau teilatu, 10 urte gartzen, edo ... gurea da EH Sukarra* abestu zituzten, eta bertan zegoen jendea 15 urte atzera bidaian jarri zuten, aspaldiko kontu eta kantuak gogoratzan, momentu batez denboran bidaiatuz.

**MIKEL, POZIK**  
Behin eta berriz eman zituen eskerrak Mikel Gorosabel *Norton* abeslari eta gitarrak. Arrasate eta arrasatearrak bihotzean daramatza, garai batean bertan biziakoa baita. Denbora goxo eta ahaztezinak pasatu zituen herrian; *Nerbixuak* abestia, adibidez, Arrasaten jaiotakoa da,

kaletik Zigorrola auzorako bidean hain zuzen ere. Itxura denez, *Norton* Zigorrolan bizi zenean, kaletik etxera zihoa, inspirazioa bisitan etorri eta kanta sortu zuen horrela.


**Mikel Gorosabel > EH Sukarreko abeslaria**

### "EH Sukarraren estreinako zuzenekoa kaleratuko dugu laster"

**M.U. > ARRASATE**  
**Mikel Gorosabel da EH Sukarraren arima eta bihotza, hasiera-hasieratik baitago taldean, gitarra jotzen eta abesten.**

Kontzertu berezia izango da Arrasateko zuretzat, ez?

Bai; oso maite dut Arrasate, hemen bizi izandakoa naiz, orduko oroitzapen oso onak dauzkat eta nire bihotzaren zati bat Arrasateko da. Itxura berbera daukazun arren, dagoeneko aitatxo ere bazara. Aldatu du horrek musika ikusi eta ulertzeko zure ikuspuntu?



MAIER URANGA

Ez, oraindik ez; umeak sei hilabete baino ez ditu. Hori bai; egunak askoz motzago sumatzen ditut.

Azken lana 2002an argitaratu zenuten; zein plan duzue orain?

Aurten, Durango-kon Plateruean zuzenekoa grabatu dugu, eta kaleratzeko asmoa daukagu. EH Sukarraren lehenengo zuzenekoa izango da.

Gorosabel abizena pisu handia da? Ez duzue batera jotzea pentsatu?

Norton Kluben aintzira ere badago, eta lehenengo diskoa Aitorrek sartu zuen bateria. Anaien artean zailagoa da guztia, baina ondo legoke.

ZARZUELA > ESTREINALDIA

## Amaia Antzokia, beteta zarzuelako lehen astean

Sarrera batzuk saldu ez ziren arren, Amaia bete egin zen zapatu eta domeka arratsaldean

**M.U. > ARRASATE**

Zapatuan eta domekan, biak ala biak 19:30ean, *El duo de la africana* zarzuela ikusi ahal izan zuten Arrasateko Amaia antzokian bildu ziren. Urtero moduan, jende piloa batu zen Izaskun Murgia Lirika Elkar-teak prestatu eta antzeztutako emanaldiak ikustera. Aurten go lana komikoagoa da; ez dago pertsonaia komikorik, baina

zarzuela obra bera komikoa da. Jendeak primeran pasa zuen antzezlanarekin, eta gustura barre egin zuen une askotan.

**HURRENGO EKITALDIAK**

Aste bukaeran joaterik izan ez duzuenok oraindik garaiz zabiltzate, datorren aste bukaeran, azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean, zarzuela horren besete bi emanaldi egongo dira-eta.



ZARZUELA Protagonistak, abesten.

JOSETXO ARANZABAL



ANTZOKIAN Oñatioko bandaren kontzertua.

JOSETXO ARANZABAL

MUSIKA > SANTA ZEZILI EGUNA

## Lau oñatiarrek 25 urte bete zituzten bandan jotzen

Santa Zeziliko kontzertua aprobetxatuta, omenaldia egin zieten bandako beste kideek

**M.U. > OÑATI**

Zapatu arratsaldean aurkeztu zuten Tailer I, 4-5 urteko Oñatioko abesbatza talde berria. Ez ziren bakarrik egon, izan ere, Oñatioko Tailer II, Ganbara Txikitxo eta Ganbara Txikiz gainera, Arrasateko Goikobalu Txiki eta Gazteek ere parte hartu zuen. Jendez gainezka egon zen kontzertua, eta guraso batzuk kanpoan geratu ziren. Ostean, luntxa egin zuten.

Atzo, berriz, 12:30ean, Santa Zezili eguneko Oñatioko bandaren kontzertua egon zen. Bandan 25 urtez partaide diren Mikel Guridi, Judith Olalde, Felix Biain eta Bixente Ibarra do omentzeko ere aprobetxatu zuten, eta bandako urrezko intsigia eman zitzaien.

Urtero bezala, beste herri batzuetan ere Santa Zeziliko emanaldiak egon ziren: Antzuolan, Bergaran, Eskoriatzan...

Oñatin jaio zen 1956an, nahiz eta gaztetan Gasteizera bizi izatera joan. Betidanik ibili da

musika munduan lan eta lan, gedi egoteko astirik hartu barik. Horregatik, akaso, Euskal Herri-

ko artista aipagarrienetako bat dugu Ruper Ordorika. Inoiz baino gertuago, intimoago eta ede-

rrago gerturatu zen domekan Elgetako Espaloira, 'Memoriaren Mapan' azken lanarekin.

Ruper Ordorika > Musikaria

# "Nik arrakastaz ezer gutxi dakit; niretzat, musikan ibiltzea da arrakasta"

MAIER URANGA > ELGETA

Atzo, domeka, egin zuen Elgetan *Memoriaren Mapan* laneko azken kontzertuetako bat. Aitzaki hori hartuta, Ruperrekin izanginen, bere bizitzaren gainean berbentan. Itxurarikez duen arren, 51 urte ditu oñatiarrak; horrela uler daiteke izan duen ibilbide luze eta aberatsa.

**Goazen hasierara: 1977-80an, Pott Banda izeneko literatur taldeko partaide izan zinen.**

Aspaldiko kontuak dira... Astero elkartzen ginen sei lagun, irakurtzeko, eztabaidatzeko... Guretzat propio garrantzitsua izan zen, baina ez dut uste hain jakutin ginenik. Uste dut Bernardo Atxagarengatik sortu zela ideia. Aldizkari moduko bat argitaratzen genuen. Lorpen handiena *Etiopia* argitaratzea izan zen, Atxagaren lehenengo poema liburu. Gero, bakoitzak bere bidea jarraitu genion.

**Talde horretatik lortu dituzu zure abestietako hitz asko, ez?**

Bai, bueno; lehenengo diskoa egin nuenean, *Hautsi da Amphora* (1980), orduan guztiz ezezagun zen Bernardo Atxagaren hitzak erabili nituen, ez zituen niretzako idatzi. Badira salbuespenak, hala ere: kasu pare batean, kantatzeko moduko testuak egin zituen, baina gehienak ez ziren niretzat egingo. Azken diskoan, bai, hor badira abesteko propio egin diren hitzak.

**80ko hamarkadan, Euskal Punk Erradikalaren mugimendua zegoen arren, zuk zure estiloan, orduan ere. Ze oroitzapen dituzu?**

Oso onak; nire lagun gehienak taldekoak ziren, Bilbon edo Gasteizen ibiltzen nintzen orduan. Hertzainak taldekoekin, konkretuki, asko, harreman oso ona genuen, lehenengo diskoan neuk ere abestu nuen, eta hirugarrena nik ekoiztutakoa da. Bakoitzaren lana desberdina zen arren, eguneroko bizitzan, batera ibiltzen ginen; zaletasun berberak genituen denok.

**Ez da posible 1990ean, eta ondoren, Mugalaris-ekin hasi zinen, zer dela eta?**

Mugalaris izen hori asmatu nuen adierazteko hasieratik egin dudan gauza bat, esateko ez nagoela bakarrik. Mugalaris horiek etengabe aldatzen dira eta aldatuko dira.



Ruper Ordorika kontzertua egin zuen atzo Elgetan.

JOSETXO ARANZABAL

80KO HAMARKADA

**"Hertzainak taldekoekin harreman oso ona nuen. Eguneroko bizitzan, batera ibiltzen ginen"**

New Yorken ere ibilia izan zara. Musikari internazionala zara?

Ez da beharrezko kanpora irtetea, baina niretzako oso garrantzitsua izan da. Kanpoko musikarekin nahasteak, edo batek bestera ibiltzeak asko balio du. Ez nuke jakingo esaten zer

'MEMORIAREN MAPAN'

**"Aldaketa erradikala izan da niretzat Jon Pirisekin bakarrik ibiltzea disko hori ateratzeko"**

ikasi dudan. Ez dakit zein gauza bitxi gertatzen den kanpora joaten garenean, baina argi dago zer-bait badela, aurreiritzi eta ohitura asko kendu egiten ditugula-ko burutik, eta aberasgarri dira gertatutakoak gure burua hobeto ezagutzeo. Bakardadea ere izan daiteke, akaso, bai.

HIRU TRUKU

**"Hiru-Trukurekin egindako lanarekin lasai geratu nintzen; oso pozgarria izan zen posible egitea"**

**Hiru Truku ere bai?**

Betidanik eduki dut euskal abesti zaharrekiko zaletasuna, nahiz eta rockarekin lotu nire burua. Urtetan, kantu ezezagunak batu izan ditut, eta, kalera aterazterako orduan, Tapia eta Bixente Martinezekin elkartu eta hiru disko atera ditugu. Oso harrera

ona izan zuen hirukoteak, eta egindako lanak asko lasaitu ninduen; oso pozgarria izan zen.

**Beti taldean ibiltzetik, azken lan hau Jon Pirisen konpainia apalean aurkeztu duzu?**

Azken diskoaz geroztik, biok gabiltza taula gainean, eta alda-keta aski erradikala izan da niretzat: asko ikasi dut aurten, eta oso arrakastatsua izan da, gainera.

**Badago alderik taldean edo bikoteka ibilita?**

Kantua gailentzen dela uste dut. Gertuagoa da, eta berbak, nabarmenagoak. Beste modu batera entzuteko ikuszkizuna da.

**Donostian, Victoria Eugenian, izango da *Memoriaren Mapan* kontzertu birako azkena?**

Bai, Donostiakoa izango da itxiera kontzertua. Inon ez dut bi aldiz jo errepetorio hau, eta polita iruditu zitzaidan, eskaini zidatenean, Donostian hasi eta bukatzea. Ospatu beharra dago, hasieran dudak izan nituen arren.

**Nondik nora ibili zarete kontzertuak ematen?**

Euskal Herrian kontzertu mordoa eman ditugu; Spainian ere bai, asko. Inglaterran eta Txekian ere ibili gara, baina literatura festibaletan, Inglaterran kaleratutako euskal liburu baten kontura, *Six Basque poets*; baina, gehienbat, Euskal Herrian eta Spainian.

**Eta, gainera, aurreko urteko urrian, Bilboko Kafe Antzokian grabatutako lana kalera-tzeko asmoz, ez?**

Bai, otsailean kaleratuko da; hasieran Durangoko azokarako izan behar zuen arren, konturatu nintzen *Memoriaren Mapan* oraindik ere oso bizirik zegoela, eta ez nuen batak bestea jaterik nahi. Lasai, otsaila amaieran ate-rako dugu.

**Musikari batek arrakasta izan dezan, geldi ez egotean dago arrakasta?**

Nik arrakastaz ezer gutxi dakit. Arrakasta, niretzat, hone-tan ibiltzea da, nor bere zaleta-sunekin ikasten eta urrutia goeltzen.

**Zein asmo dituzu, bada, aurre-rantzean?**

Diskoak atera eta Mugalaris taldea sortzen hasiko naiz, badugu aldatzeko garaia eta.

## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 60 m2. Bi gela, egongela, bainugela, sukaldea-jangela, despentsa, berogailua. Berrituta eta jantzia. Oinezkoendako aldean. 198.300 euro. 679 80 18 26.

**Aretxabaleta.** Berritua. 79 metro koadro. Sukaldea, egongela, 3 logela, komuna, 2 balkoi eta garabana ditz. Altzari hornitua. Berogailua eta igogailua. Loramendi kale inguruan dago eta argitsua da. Prezio interesgarria. Deitu 635 75 83 43 edo 665 70 41 29 zenbakira.

**Arrasate.** Duplexa salgai Ota- lora kalean, Arrasate erdialdean. Egongela, bi logela, sukaldea, bi komun eta 20 m2-ko terraza. Etxe nahiko berria (12 urte). 696 79 43 89.

**Arrasate.** Erdialdean aparta- mentua salgai. Zeharo berritu- ta. 645 73 04 69.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai erdialdean. Eraikinberria. 94,50 m2. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Igogailua eta berogailua. 686 24 97 48.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 metro koadro. Guztiz berritua. Bilogela, egon- gela, bainugela eta sukaldea. Kanpoaldea begira. Igogailua eta sotoa. 620 15 12 12.

**Arrasate.** Grupo San Juanen etxeak salgai. Eguzkitsua, 60 m2. Igogailua, garabana eta sotoa. 619 25 46 69.

**Arrasate.** Malvinetan. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta garajea. Ikuagabe eder- rrauk eta eguzkitsua. 330.000 euro. 685 70 78 03.

**Arrasate.** Zerrajera kalean. 110 metro koadro. Hego-mende- baldera begira. 945 15 40 22.

**Arrasate.** Zigarrolan etxebizitza salgai. 53 m2. 3 logela, egon- gela, bainugela eta sukaldea. Altzarienkin. Guztiz berritua eta oso egoera onean. 615 75 96 36.

**Bergara.** Duplex motako (pisu+garabana) etxebizitza berria (6 urte), 125 m2; sukalde ekipauta, 2 logela (beste 2 egiteko aukera), 2 bainugela, jangela handia, trasteroa, 3 bal- ko, gas naturala, igogailua, parabolika. Garaje plaza itxia aukeran. 943 52 68 91.

**Bergara.** Etxe saltzen dut, Simon Arrieta plazan. Hiru logela, egongela handia, sukaldea, komuna eta bi balkoi ditzu. Dena kanpora begira. 299.900 euro. 635 73 87 55.

**Bergara.** Ibarra kalean etxebizi- tza salgai, berritua eta bizi- tzeko gertu. Berogailua. Jantzia. Bikote eta pertsona baka- rrarendako oso egoia. 50 m2. 18.000 euro. 635 71 04 55.

**Bergara.** Zabalotegiko dorrean. Guztiz jantzia. Hiru logela. 690 68 37 88.

**Bergara.** Zubiaurre kalean etxeak salgai. Berritua, berogailua eta garabarekin. 619 41 39 72.

**Etxeabala.** Etxebizitza salgai, bigarren solairua. Igogailua dauka, hiru gela, sukaldea, komuna

eta garabana. Aukera onean hilabete honetan. 137.032 euro (22.000.800 pta). 645 71 76 25.

**Etxeabala.** Lau urteko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela-jangela, garaje-trastekua. 239.000 euro. 655 45 07 26.

**Gasteiz.** Txorrigintxa inguruan etxebizitza salgai. Bi logela, egongela-jangela, sukaldea eta bainugela. Berogailua eta igogailua. Bista oñak. Deitu 630 57 70 99 zenbakira.

**Nafarroa.** Urederra inguruan bi solairuko etxea salgai. 123 metro karratua. Berritua. 185.000 euro. 943 76 00 03.

**Oñati.** 120 m2-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitza sar- teko moduan. Argitsua eta material erderik eginga. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 420.000 euro. 676 39 36 93.

**Oñati.** Duplexa salgai eraiki- tzen diharduten etxebizitzan. Lehen eta bigarren solairuak. Garajea eta trastekua dauza. 670 85 41.

**Oñati.** Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. Jantzia eta biultza politenik. Hiru gela, bi bainugela, egongela, estudioa, bi terraza, sukaldea eta garaje itxia. 652 74 08 30.

**Oñati.** Kale zaharrean 100 m2-ko etxea salgai. Hiru logela, garabana terrazarekin. Deitu 657 79 43 29 telefonora.

**Oñati.** San Lorentzon, eguzki- tsua. Hiru gela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta garabana. 312.000 euro. Garaje itxia aukeran (20 m2). Deitu 656 74 80 47 zenbakira.

**Oñati.** Zubillaga auzoan. 79 m2. Hiru logela, sukaldea, sala, komuna eta garabana. 41 milioi, negoziagarriak. 635 71 41 39 edo 943 08 13 25.

**Soraluze.** Etxebizitza salduko nuke erdialdean: hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Egoera onean. 168.284 euro. 687 08 33 00.

**Torrejuela.** Guztiz jantzia. 67 metro koadro. Prezio adostu daiteke. 671 60 82 81.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Arrasate erdian. 65 m2, berritua, bikote batendako apropsoa. 630 22 27 86.

**Arrasate.** Etxe errantzen ematen dut Erguín auzoan. Deitu 635 73 04 63 zenbakira.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzarienkin. Deitu 628 26 65 77 telefonora.

**Arrasate.** Gesalibar. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egon- gela. 943 79 80 70.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxe bat alokatu nahi dugu, lau pertsonentzako. Presazko. Ainhoa. Deitu 943 71 20 80 zenbakira.

**Arrasate.** Etxebizitza errant- hartuko genuke. 686 69 41 40.

**Arrasateko neska batek** etxe- errant hartuko luze, Arrasate- ten, Aretxabaletan edo Eskoria- tzan. 699 06 31 76.

**Oñati.** Errekaleko auzoan. Ibilgai- luendako soilik. 616 71 53 29.

## IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

# 943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARIKI DOAN JARRIKO DITU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENeko GOIENKARIAN BIETAN,

ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**BERGARA**  
**IRISH PUB GALWAYS**  
tabernak  
esperientziadun  
zerbitzaria  
behar du  
943 76 30 86

**ARRASATE**  
Zerbitzaria  
behar da.  
Esperientzia izan  
behar du plantxan.  
679 16 42 70

**6/ MOTORRA**  
**601. SALDU**

**BMW F 650 GS** motorra salgai. 2.500 kilometro ditu, bi urte eta hainbat osagari. Oso egoera onean dago, 6.400 euro. Deitu 636 85 74 43 zenbakira.

**Autokarabana.** Benimar auto- karabana salgai. 5.000 ld, 127 zaldiko Fiat Ducato 2.8 moto- rra, kaputxina, 6 pertsonaren- tzako. 1999ko, guztiz hornitua, 23.000 euro. Deitu 635 71 41 39 telefonora.

**Bergara.** Emakumea gertu sukaldeak laguntzaile, garbi- ketala lanak eta adineko pertsona edo haurrak zaintzeko. 664 38 49 76.

**Bergara.** Emakumea lanerako gertu sukaldeak laguntzaile, garbi- ketala lanak eta adineko pertsona edo haurrak zaintzeko. 664 38 49 29.

**Citroen C4** Coupe beltza salgai. 138 ZP. Diesela. 55.000 km. Estra guztiek. Oso egoera onean. 13.000 euro. Deitu 627 93 55 74 zenbakira.

**Ford Transit** Conect furgoneta salgai. TDCI 90 ZP. Zuria. 2003ko, 90.000 eta 100.000 kilometro artean. 10.300 euro. 699 37 15 11.

**Jeep Wrangler.** 147 ZP, 2003ko, beltza, oso egoera onean. Ezda mendian erabil eta ikuspen guztiek pasa ditu. 14.000 euro (negoziagarria). 679 10 95 23.

**KTM 250SX.** 2006. urtekoa. Egoera onean. Deitu 699 15 84 48 zenbakira.

**Debagoina.** Emakumea gertu arratsaldez etxeak garbitzeko. 943 76 04 18 edo 676 87 64 08.

**Debagoina.** Mutil gaztea lan egiteko gertu. 688 65 33 01.

**5/ IRAKASKUNTZA**  
**501. JASO**

**Arrasate.** Iraikasle bat behar dugu DBHKO 4. mailako ikasle bati eskolak emateko. Mezuak 699 29 51 zenbakira.

**Arrasate.** Lan bila dabilen muti- la naiz: zerbitzari, iturgin lagun- tzaile, margolarri edota sukaldeko laguntzaile moduan jardun dezaketen. Baita pertsona nagusiak zaintzen ere. 666 75 73 21.

**Bergara-Arrasate** Garbiketa lanake egindo nituzte. Aste buka- eran eta jai-egunetan lan egiteko prest. 696 38 10 07.

**Bergara.** Emakumea gertu sukaldeak laguntzaile, garbi- ketala lanak eta adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko. 628 52 34 06.

**Arrasate.** Behar bereziak ditu- ten umeei lagunza eskolak emango nizkieke. Arratsaldez deitu. 645 73 04 69.

## 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingelesko esko- lak ematen ditut. 943 79 03 83.

**Bergara.** Elektroteknika eskolak jasoko nituzke. Deitu 19:00et- atik aurrera. 626 32 04 72 telefono zenbakira.

**Seat Toledo** turbodiesela salgai. Aukerana, 700 euro. Deitu 639 96 29 51 zenbakira.

**Suzuki Vitara** 2.0 hdi, egoera onean. Deitu 647 29 93 44 telefono zenbakira.

**Volkswagen California** salgai, 1996ko. 189.000 km. Estrak: airea girotua, estalkia, lau bizi- kletxa eramateko, CD alau boz- golairurekin. Ez da TDI. 14.000 euro. 636 28 00 07.

**Volkswagen California** Tdi 102 ZP furgoneta. 95.000 km. Sigma BC 800 abiadura neur- gailua oparitzen dut. 667 08 93 09.

**Gitarra** elektrikoa salgai. B.C. Rich. Warlock modeloa. Ampli- fikatzalea ere salgai. Marshall. Bierriak dira. 679 21 35 07.

**Ostalaritzako makinaria,** mahai, aulkia eta halakoak saltzen du negozioa itxi dudalako. 649 84 67 09.

**Hozkailua** salgai. Gasarekin, bateriarekin edo elektrizitate- arekin doa, 12 w-ko. 200 euro. 630 60 90 53.

**Mahaiobalatua** salgai. 1.360x0.90 cm, luzgarriekin. 200 euro, negoziagarriak. 617 17 15 88.

**Mahai.** Egongelako mahai bat salgai. 90x90 neurrikoa. Gere- nero. 697 56 29 18

## 7/ ANIMALIAK

## 701. SALDU

**Debagoina.** 2 urteko zaldi ar- biarrasalga, kartarekin. 64764 02 81.

**Euskal artzain txakurrak** salgai, 15 astekoak, iletsua. Arrazadu- nak, artzaintzarako edo lagunegi- teko ezin hobeak. 605 70 04 75.

## 703. EMAN

**Artzai txakurkume** emea opa- ritzen dut. Hiru hilabete ditu. 606 21 10 71.

## 804. BESTELAKOAK

**Debagoina.** Txakurkede animaliak zaintzeko gertu nago. Animalien tratuan eskarmen duktak. 670 43 16 52.

**Setter** ingeles arrazako txakur emea galdu zen azaroaren 10ean Hiruherreketan inguruan, Araba eta Gipuzkoa arteko mugan. 10 hilabete ditu, zuria da eta beriarrieta pintza gorriak ditu. Norbaitek ikusi badu, mese- dez deitu. 943 79 73 12 edo 685 72 46 86.

ziondo kolorea duka eta kris- talezkoada. Berria. 99 euro. 653 72 22

## kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

## Otsoaren eta artzainaren ipuina

**U**rtea aurrera doa, eta Gabonak gero eta ger-tuago ditugu. Gutxi falta da oporrak hartu eta **Olen-tzeroren** bisita jasotzeko; bai-ta, Urtezahar gauean, kalera irten eta 2008ari ongietorria egiteko ere.

Gure herrietako kale batzuk hasi dira apaintzen; bai-ta dendak ere. Oñatin gas-tatu behar omen dugu diru gehien argia ipintzen. **Hues-car-ko dukea** eta **Koplowitz** hobeto ikusteko izango da!, esango zuen otsoak... Horren harira, kontuz ibiltzeko esan didate, aurreko astean ez

**"Eskoriatzako Ardo Egunean, ederto pasa zuen Arrasateko koadrila batek parrandan"**

nuen-eta idatzi "ustezko ezkontza". Badaezpada, inork auzitara eraman aurretik...

Bestalde, joan den aste bukaeran, ardo-dastatzea egon da Eskoriatzan, Ardo Eguna-ren barruan. Han, Arrasateko koadrila batek majo pasa-tu omen zuen, basoerdia edan eta edan. Hori ere, ustezko parrandan utziko dugu...

Ardoa ez, baina euria, behintzat, ugari bota du egun hauetan. Ez dut uste gurean ur faltan egongo garenik! Donostiaro maratoian izan zirenak ez ziren busti, baina hotza, tremendakoa pasa omen zuten. Hori esan digu **Ritxar Fernandezek**, behin-tzat. Lasterketa Grosen utzi behar izan zuen, eta handik Anoetaraino, oinez joan zen; izugarrizko hotza pasa zuen atleta oñatiarrak.



**Gaztaina erreak Basabeazpin.** Azaroaren 16an, Aitonamoen Eguna ospatu zuten Aretxabaletan, Basabeazpin. Mariano Calvo, Joxe Antonio Elexpuru eta Txomin Otxoa aitonen martxan ipini zituzten, ikastola aurrean, danbolinak. Gero, gainontzeko aitona-amonak gerturatu ziren jaira. Gaztaina erre-en dantza egin ondoren, umeek eta irakasleek gaztainak jan zituzten aitona-amonekin, eta, hotza egin arren, arratsalde paregabea pasatu zuten.



**Ardo-dastatzea.** Aitzorrotz elkartea antolatuta, ardo-dastatzea izan zen zapatu-an Eskoriatzan. Azoka kutsua eman diote aurtengo ekitaldiari, eta hiru ardan-degik ekarri zituzten urteko, ondutako eta erreserbako ardoak: Larchago, Son-sierra eta Manso Anaia. Eguraldi hotzari aurre eginez, ardoarekin berotu zituen barruak batek baino gehiagok. Gainera, Valentin Lopez Kerexetaren eskutik, Mendraka txakolinaren gaineko argazki emanaldia ikusteko aukera ere izan zen.



**Mus txapelketa.** Bereha-lako Mus Txapelketa jokatu zuten atzo arratsaldean Mondragon hotelean. 32 bikotek eman zuten izena, eta hauek izan ziren lehenengko laurak: Jose Joan Zubizarreta eta Emilio Uri-besalgo, txapeldunak, argazkian (640 euro, urdiaizpi-ko eta txapela), Oskar Sanchez eta Ivan Rodriguez (320 euro eta bi botila handi xan-pain), Tomas Izagirre eta Javier San Sebastian (192 euro, ardoa eta gazta) eta Andres Amador eta Juancho Blanco (ardo kaxa).




**Udazken jaia.** Eguaztenean, azaroaren 21ean, Udazkeneko Festa egin zuten Leintz Udal Euskaltegian, Aretxabaletan. Merienda egin zuten lehenengo, eta, besteak beste, gaztainak eta txistorra jan zituzten, eta baita txakolina edan ere. Dena dela, guztia ez zen jana eta edana izan udazken jaian. Jolaserako eta lehiarako aprobetxatu zuten aukera: hieroglifikoen jolas, abestiak, txisteak... izan ziren, eta Irabazleek diplomak eraman zituzten etxera.



**Batzokieguna.** Bergarako EAJkoek urtero, azaroko azken asteburuan, Batzoki Eguna ospatzeko ohitura dute. Sabino Arana hil zeneko urtemugarekin bat eginez ipintzen dute hitzordua, eta aurten, zapatuan, hilaren 24an, elkartu ziren. Meza entzun zuten iluntzean Moja Zaharretan, eta urtean barrena hil-dako alderdikideak gogoan izan zituzten. Ondoren, batzokian elkartu ziren 40 lagun inguru afaritarako, eta berriketan gozatu zuten afalostea.

## ezkontzak



**Yolanda Sanchez eta Iker Mendiluze** arrasatearrak zapatuan, azaroaren 24an, ezkondu ziren Aizarnazabal-en. Bazkaria Zestoan egin zuten, eta bidaian, Venezuela joan dira. Zorionak eta musu handi bana, Jone eta Miren Bergarako lehengusinen partetik!

## hildakoak

- Santiago Lafuente Otxoa. Arrasaten, azaroaren 15ean. 54 urte.
- Victoriana Basterra Rodriguez de Iurre. Arrasaten, azaroaren 14an. 91 urte.
- Mari Carmen Garitano Areitio. Bergaran, azaroaren 17an. 63 urte.
- Angel Agirre Astaburuaga. Arrasaten, azaroaren 17an. 82 urte.
- Maria Jesus Lodoso Bergaretxe. Arrasaten, azaroaren 17an. 86 urte.
- Miguel Etxezarreta Galdos. Oñatin, azaroaren 18an. 79 urte.
- Manoli Varona Fuentes. Bergaran, azaroaren 18an. 88 urte.
- Julia Iartz Egaña. Oñatin, azaroaren 20an. 89 urte.
- Tomas Otxoa Gartzia Etxabe. Aretxabaletan, azaroaren 21ean. 76 urte.
- Jacinto Ziarsolo Alberdi. Bergaran, azaroaren 21ean. 73 urte.
- Sotera Gorrotxategi Etxeberria. Bergaran, azaroaren 22an. 85 urte.
- Iñaki Olabarria Arana. Bergaran, azaroaren 23an. 53 urte.

## ESKELA

## Iñaki Olabarria Arana

Bergaran hil zen 2007ko azaroaren 23an, 53 urte zituela.

*Zu joan zara,  
baina zuk utzitako  
gurekin gelditzen da.*



Lagun koadrila.  
Bergaran, 2007ko azaroaren 26an.

## ESKELA

## Iñaki Olabarria Arana

Bergaran hil zen 2007ko azaroaren 23an, 53 urte zituela.

*Elkarrekin momentu  
alai eta biziak pasatu dittugu.  
Ondo izan, Iñaki.*



Tio Martin, tia Lide eta Barrenkaleko lehengusu-lehengusinak.  
Bergaran, 2007ko azaroaren 26an.

## zorion agurrak



ARETXABAleta

Leire Elizondo eta Eider Martinez

Azaroaren 1ean eta 21ean, 7 urte. Zorionak, etxekoena eta lagun guztien partetik!



OÑATI

Maialen Altuna

Azaroaren 23an. Aupa, Maial, zorio-nak kuadrilakuan partetik. Egon tran-kil, guapa, zelebrau-ku eta!



ARRASATE

Martxel Bengoa

Azaroaren 23an, 5 urte. Zorionak, Jokin, Maider, Ainhoa, Luken eta Uxeren partetik!



ARETXABAleta

Danel Seijo

Azaroaren 25ean, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik!



ARRASATE

Aida Otadui

Azaroaren 25ean, 11 urte! Zorionak! Patxo bat haundi-haundi bat etxeko danon partetik!



OÑATI

Miren Lardizabal

Azaroaren 26an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat, Manex, Sara, Jon eta Anaren partetik.



ARRASATE

Aratz Narbaez

Azaroaren 26an, 4 urte. Zorionak, etxeko bihurrixtxo! Patxo bat familia-ren partetik! Muxu haundi bat.



ARRASATE

Karen Ruiz Arana

Azaroaren 26an, urtebetetzea. Zorionak, wapisima! Etxekoena partetik! Muxu haundi bat.



ELGETA

Josu Zubala

Azaroaren 29an, urtebetetzea. Zorionak zure egunean, Elgetako lagunen partetik!



## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENeko GOIENKARIaren bidez! Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

## PARTe HARTU

Kintadak,  
aste bukaerako  
ezkontzak,  
txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure  
txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu  
argazkia eta  
azalpena edo bidali  
honako helbidera:  
[astelehena@goiena.com](mailto:astelehena@goiena.com)



Aitor Montaño Fernandez

Bergara > 3,610 kilo. Gurasoak: Dorleta (Bergara) eta Angel (Bergara). Argazkian, Aitor jaioberria, amama Loren eta lehen-gusina Nazarethekin.



Maite Caceres Martin

Arrasate > 2,760 kilo. Azaroaren 19an. Gurasoak: Jone (Arrasate) eta Florencio (Arrasate). Argazkian, Maite jaioberria, amarekin.




Manex Madinabeitia Benavent

Aretxabaleta > 3,280 kilo. Azaroaren 20an. Gurasoak: Itziar (Donostia) eta Oskar (Aretxabaleta). Argazkian, Manex jaioberria, kuman.



Haizea Makinai Murgoitio

Soraluze > 3,360 kilo. Azaroaren 19an. Gurasoak: Leire (Soraluze) eta Angel (Soraluze). Argazkian, Haizea jaioberria, kuman, lo.



Ainhize Lopez de Aretxabaleta San Julian

Arrasate > 3,500 kilo. Azaroaren 19an. Gurasoak: Enkarni (Arrasate) eta Kepa (Gasteiz). Argazkian, umea, amarekin.



Eva Rodriguez Pera

Bergara > 2,800 kilo. Azaroaren 20an. Gurasoak: Sandra (Bergara) eta Hugo (Bergara). Argazkian, Eva jaioberria, kuman, lo.



Lander Iñiguez Porcel

Arrasate > 3,820 kilo. Azaroaren 20an. Gurasoak: Ainhoa (Arrasate) eta Haritz (Arrasate). Argazkian, Lander jaioberria.



Itzea Umerez Zubikarai

Arrasate > 3,800 kilo. Azaroaren 21ean. Gurasoak: Leire (Arrasate) eta Esteban (Arrasate). Argazkian, Itzea jaioberria.



Iker Gomez Gimbert

Bergara > 3,050 kilo. Azaroaren 21ean. Gurasoak: Sonia (Bergara) eta Carlos (Bergara). Argazkian, Iker jaioberria, kuman lo.



Aimar Hernandez Fuentes

Arrasate > 3,100 kilo. Azaroaren 23an. Gurasoak: Yoli (Arrasate) eta Oliver (Aretxabaleta). Argazkian, Aimar jaioberria, kuman.



BABESLEA

IKUSI  
MAKUSI  
Umeen  
paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Asier Serrano > Idazlea eta musikaria

## "Helmugak ez dit axola; bidea egiteak, bai"

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
Asier Serrano eibartarrak bi liburu eta disko bat kaleratu ditu aurten. Aspaldian, literatura eta musikagintza uztartzen ditu, haur hezkuntzan egiten duen lanarekin batera. Batzuek Lorelei taldearen-gatik ere ezagutuko dute.

**Umetan, bihurria eta alperra zinen...**

Bai; ikasketetarako, alperra nintzen. Mendi aldera joaten ginen txabolak egitera, fabrika hutsetan barrabaskeriak egin... Bainan orain, irakasle lanetan ikusitakoak ikusita, uste dut santu samarrak ginela.

**Institutu garaian, klasean, marrazkiak eta poesia zirrroak egiten hasi zinen, ezta?**

Bai; disimulatzeko aproposa zen, bai eskolan eta baita etxeen ere. Gerora, damutu izan naiz ikasketekiko jarrera hori izateaz.

**Baina Magisteritza ikasteaz ez zara damutuko...**

Ez, inondik inora, oso lan talde ona izan nuelako. Horrez gain, oso pozik nago euskal kultura eta

euskara gehiago maitatzen ika-si nuelako. Orduan, Asier alperra desagertu egin zen.

**Eta Asier marrazkilaria desagertu da?**

Ez. Adibidez, eskolan, tarte-ka, umeendako marrazkiak egi-tutit; eta saiatu nintzen nire bakarkako azkeneko diskorako marrazkiak egiten, baina, azke-nean, ez genuen egin.

**16 urterekin, argitaletxe bate-ra jo zenuen, zure poemaz...**

TEST-A

**Herria:** Eibar. **Adina:** 32 urte. **Ikas-**

**ketak:** Magisteritza. **Zaletasunak:** Bidaiazea, kirola egitea eta lagunekin afariak egitea. **Nora egin-**  
**gozenuke bidaia bat?** Anaia-rekin joaten naiz bi urtean behin. Kana-dia edo Annapurna erre-pikatuko nituzke. **Betetako amets bat?** Bizi-tza pribilegiatua izatea. **Idazle bat?** Izugarri gustatu zait Jose Saramagoren *Ensayo sobre la ceguera* berriro deskubritzea. **Dis-ko bat?** Itoizen *Ezekiel*.


Bai; aitak lagunduta, elkarritzeta bat lortu nuen Susakoe-kin. Batzar oso interesgarria izan zen, nahiz eta nire poemak baztertu egin zitzuten. Asko ikasi nuen orduan, eta Lubaki Banda ere horren ondorioz sortu genuen.

**Bakardadearekin eta etxeare-kin lotzen dugu idazlea; eta zuk, berriz, kirol asko egin duzu.**

Bai, beti egin dut kirola. Inoiz ez naiz lehiakorra izan, gurago dut bakarrik ibiltzea. Behobian eta maratoietan ibilia naiz, bai-ta Kilimanjaro ere, baina hel-mugek ez didate axola.

**Poltsikoan daramazu orain-dik familiakoen argazkia?**


Bai. Orain dela urte batzuk konturatu nintzen urtebetean bi bider bakarrik bisitatu nituela, eta argazkia hartu nuen. Zarau-tzen 10 bat urte egin ostean, Eiba-rerra bueltatu naiz, eta orain, egunero ikusten ditut. Oso lotura berezia daukat gurasoekin, bain-a ez da fisikoa. Konfiantza dute nigan, eta oso gaztetatik soka barik utzi ninduten aske.



LITERATURA Liburu bi kaleratu ditu aurten Asier Serrano bihurriak. I. BARANDIARAN

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

Aurrerantzean, bazar txinatarrek ezingo dute jaiegunetan zabaldu. Ondo iruditzen zaizu?



## biharamuna

Mario De Gracias

### Importa denari, lehentasuna

**H**edabideei deigarria egiten zaiena alde batera laga eta importa denari lehentasuna emateko" dei egin zuen **Rosa María Calaf** kazetariak. Bere ibilbideagatik telebistaren sari nagusia eman diote TVE1eko albistegeen nazioarteko kazetariari. Bere estatusak lagunduta-edo, dei egin die telebista kateetako nagusiei informazioaren alde egin dezaten, eta kazetariei, prekariatateak dakaren kalitatearekiko utzikeriari aurre egiteko. Txalo zaparra-da jaso zuen **Buenafuente** aurkeztu zuen saioan. Neukere, etxeko saloitik, txalo egin egin nion Calaf; eta gogora

etorri zitzaidan **Andoni Ortuzar**, EITBko zuendari nagusia: Euskadi Irratiaren 25. urteurreneko jaian, **Patxi Bazzarrika** eta **Odile Krutzetaren** ondoren egin zuen berba. Bakarra izan zen kartulinak eskuan zituela aritu zena; BBBko lehendakari denerako, EAJko prentsa arduadun **Amatiño**-klana badauka (dagokionak erantzuteko baimena badauka). Horixe izan genuen gogoan inguruaren ginenetako batzuk, batez ere, atzo bertan *Correo-n Jobubi-a* dela zioenean (jovenes burukides bizkaitarras). Euskararen Legeak 25 urte bete dituela-eta ekarri nahi izan dut gogora gaia.



## eguraldia



MINIMOA

+04

MAXIMOA

+13

Ipar-ekialdeko haizea egingo du, bolada gogor batzuekin, eta hodeiak ekartzen jarraituko du. Temperatura, bere horretantxe.

[www.euskalmet.euskadi.net](http://www.euskalmet.euskadi.net)

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (2 sms)  
Abestien izena (Abeslaria) | **KODEA**

**SOINUAK:** Bidali, GIPE hutsunea | **KODEA**  
**ABESTIAK:** Bidali, GIPP hutsunea | **KODEA**  
**LOGOAK:** Bidali, GIPI hutsunea | **KODEA**  
**JOKOAK:** Bidali, GIPJ hutsunea | **KODEA**

**Pop-Rock**  
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**  
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**  
Amore amore (Kariadoko benta) | **AMORE**  
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) | **ASKATA**  
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**  
Bi Minutero (Hertzainak) | **BIMINU**  
Dub manifest (Femin Muguruz) | **DUB**  
Egungero (Hertzainak) | **EGUNERO**  
EH Sukarra (EH Sukarrak) | **SUKAR**  
Elos dicens miera, nosotros amen (La Palla) | **ELLOS**  
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**  
Entzuidau (Aterking) | **ENTZU**  
Etorikzuna (Etsaia) | **ETORKI**  
Ezer ez da betiko (Kent) | **EZER**  
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

**WEBGUNEAN** [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)

**5767**  
zenbakira  
SMS bakoitzeko:  
1,2 € + BEZA

**smsoinu**  
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**LOGOAK (2 sms)**  
**KODEA**



**OHARRAK**

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu, ure poltsikoko telefonoa bateragarrirako den eskanterain ditugun produktuetekin, jarraitzeko, hornitzalearekin, haren-etaletan: [www.smsoinu.com/bateragari](http://www.smsoinu.com/bateragari)

Bertan jasoko duzu beharrezko duzen informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukatik eskuratzeko, haren-etaletan: GPS sistema aktibitatea izatea, GPS sistema aktibitatezko, jarraitzeko, hornitzalearekin, haren-etaletan, Alfa amatea doan eta eto Kj jaisitsera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPS sistemaren alfa ematea doan dira.

\* Euskatel denb. 900 42 00 20 telefonora / \* Vodafone: denb. 122 m. / Movistar: denb. 609 m.

3. ZALANTZAK: Euskal zalantzak duzu, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. PERSONALIZAZIOAK: Zure neurriara egin ditzagun abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabilizaleek eskura dezelate nahi baduzu, jarri gurekin harremantzen eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

No time for love (Hertzainak) | **NOTIME**  
Salve (La Polla) | **SAVE**  
Sarri Sarri (Kortatu) | **SARRI**  
Galiziara noa (Osorki) | **GAIZIARA**  
Gemikako Arbolia (Gontzak) | **GERNIKAT**  
Haika Mutil (Mikel Labaki) | **HAIKA**  
Izarren hautsa (Xaber Letet) | **IZAREN**  
Lepoan haritu ta (Pantxa/Peio) | **LEPOAN**  
Marinelaren zai (Sorontx) | **MARINE**  
Nere herriko neskakta mailete (Björkundi) | **NERE**  
Non geraten den denbora (Mikel Urangarri) | **NON**  
Ol! Ama Euskal Herria (Blerburdi) | **OLAMA**  
Tirauki (Osorki) | **TIRA**  
Txatxamatzalnabu (Mikel Urangarri) | **TXATXA**  
Txoria txori (Mikel Labaki) | **TXORIA**  
Zaindu maite duzen hori (Ruper Ordorika) | **ZAINDU**

Ez da posible (Ruper Ordorika) | **POSIBLE**  
Furra Furra (Osorki) | **FURRA**  
Galiziara noa (Osorki) | **GAIZIARA**  
Gemikako Arbolia (Gontzak) | **GERNIKAT**  
Haika Mutil (Mikel Labaki) | **HAIKA**  
Izarren hautsa (Xaber Letet) | **IZAREN**  
Lepoan haritu ta (Pantxa/Peio) | **LEPOAN**  
Marinelaren zai (Sorontx) | **MARINE**  
Nere herriko neskakta mailete (Björkundi) | **NERE**  
Non geraten den denbora (Mikel Urangarri) | **NON**  
Ol! Ama Euskal Herria (Blerburdi) | **OLAMA**  
Tirauki (Osorki) | **TIRA**  
Txatxamatzalnabu (Mikel Urangarri) | **TXATXA**  
Txoria txori (Mikel Labaki) | **TXORIA**  
Zaindu maite duzen hori (Ruper Ordorika) | **ZAINDU**